

GUaiXE.eus




San antondarrak biltzeko egunak lau herritan



Sakanerria >> 9

Sakanako Pilota Txapelketako 27. edizioko finalak jokatuko dira bihar arratsaldean Lakuntzan eta Arbizon



Kirolak >> 10



>>7

Arbizutik espetxera

Zinema ikuslearen eguna Altsasun

Ostegunero, 3 euroren truke

>> 13



Parlamentuak Sakanako Plan Estrategikoa babestu du

>>3

Altsasuko festen data udalean aztergai

>>6



Danbor hotsak Lakuntzan San Saastinen omenez >>8

Oroimenaren irudiak errealitate bihurtuz

Venancio Amillanoren erakusketa Altsasun Ikusgai

>> 13

Mezenas izateko aukera zabalik

Haize Berriak bandak eta Etxarriko abesbatzak Mecna zigilua lortu dute

>> 14

Nafarroako I. Trikiti Jaialdia

Bihar 17:30ean Altsasuko lortia kultur gunean >>15



Gidariak autobikiako zoruarekin kexu >>5

PREST

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
ESCUOLA POLITÉCNICA SUPERIOR

m
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

INGENIARITZA GRADUETAKO ATE IREKIAK

GOIERRIKO CAMPUSA

URTARRILAK 22
Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

MARTXOAK 14
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

MAIATZAK 21
Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI 902 110 436
www.mondragon.edu/prest

Arranomendia, 2. ORDIZIA tel. 943 88 00 62 / bulegoa@goierrieskola.org

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



efiven

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminioa-P.V.C-Mistoak



Planeta urdinerako
Green Technology

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa 2/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Jule Albira
ZORIONAK txikiti-ka!!! Hiru urte ia... Muxu haundi bat Oihan, izeba eta osaban partez.



Unai
Urdaingo 4 urteko mutik politenari ZORIONAK zure familia guztiaren partetik eta bereziki Larrerren partetik.



Ione
ZORIONAK, ondo guapiondo. Bego ta familiaren partez.



Itxaso
ZORIONAK Hiriberriko familiaren partez!! Mila muxu.



Josu
ZORIONAK berandu izan arren!! Urdaingo eta Arabako familien partetik. Ez galdu sekula zure farre polit hori! Muxu handi bat.



Sukari
ZORIONAK ttiki! Dagoeneko urtetxo bat gurekin. Txokolatezko muxuak Obats eta Eloorriren partez.



Aingeru
ZORIONAK bihotza! Gure bizitzako garrantzitsua. Asko maite zaitugu Unax, aita ta ama.



Uxuri
ZORIONAK zure Altsasuko lehengusuen partez. Muxu handi bat.



Ondatz Reparaz Anabitarte
Bat, bi, hiru, lau... ZORIONAK prezioso!!



Altsasuko abesbatza
33 urte entzuten diguzuenen bihotzak alaitzen, ZORIONAK!!!!

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

ilbeltzak

16-22

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

The Crockets. Lastailaren 16an, ostiralean, 23:30ean Lakuntzako Sorgiñak tabernan.

I. Nafarroako Trikiti Jaialdia. Ilbeltzaren 17an, larunbatean, 17:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Antzerkia

Konposteroak. Ilbeltzaren 17an, larunbatean, 17:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. Zirika Zirkus.

Txanogorritxo rock. Ilbeltzaren 18an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Zinema

Antes del frío invierno. Ilbeltzaren 16an, ostiralean, 21:45ean eta ilbeltzaren 18n, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Los juegos del hambre. Ilbeltzaren 16an, ostiralean, 22:00etan eta ilbeltzaren 18n, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Jimmy's hall. Ilbeltzaren 22an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Ikuslearen eguna, 3 euro.



Bizikleta irteerak

Txurruko punta. Ilbeltzaren 18an,



Los juegos del hambre Iortian ikusgai.

domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 46 km.
Burunda klubeko mendi bizikleta taldea.

Erakusketak

Ardiak eta beste. Ilbeltzaren 18ra arte Urdaingo Kaluxa tabernan.
Idoia Zufiaurre, Chuffi.

Oroitzapenak. Ilbeltzaren 25era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.
Venancio Amillano.

Hitzaldiak

Montessori haur-eskola. Hezkuntza berrikuntza proiektuaren aurkezpena. Ilbeltzaren 21ean, asteazkenean, 17:30ean Irurtzungo kultur etxean.

Tailerrak

Birziklatzea. Ilbeltzaren 16an, ostiralean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Familia egiten. Atxikimendua eta lotura. Ilbeltzaren 22an, ostegunean, 17:30ean Irurtzungo kultur etxean.
Eider Pacheko.

Bestelakoak

Parkinsonaren aldeko zuhaitz landaketa. Ilbeltzaren 16an, 11:00etan Altsasuko Dantzalekun.

Gaztetxokoko jardunaren errepasoa. Ilbeltzaren 17an, larunbatean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Euskal Herriko Mus Txapelketa. Ilbeltzaren 17an, 16:00etan, Altsasuko kanporaketa Zubi-Ondo elkartean. Ilbeltzaren 17an, arratsaldean, Irañetako kanporaketa Txapel Azpi elkartean.
Euskal Herriko Mus Federazioa.

Deialdiak

Hipotekek kaltetutakoan Plataforma. Ilbeltzaren 16an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 16an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 18an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero SAIOA 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:

albisteak, kirolak,

Nafarroako I. Trikiti jaialdia, Altsasuko kinto erreginak, Aralarko Mikel Donearen inkesta, Altsasuko festak, ikuslearen eguna...

Esataria: *Eneida*

SAKANA

Parlamentuak Sakanako Plan Estrategikoa garatzeko Gobernuak parte hartzea eskatu du

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak asteartean aho batez onartu zuen mozioa. Plana martxan jartzeko Nafarroako Gobernuak "parte aktiboa" izatea eskatu du

Sakanako Plan Estrategikoa (SPE) egiteko ibarreko eragile sozio-ekonomikoak egindako lan eta ahalgina aitortzearekin batera, Parlamentuko batzordeak Nafarroako Gobernuari eskatu dio SPEn jasotako akzioak "ekonomia sustatzeko bere politika orokorretan integratzeko, enplegu jasagarria eta kalitatezkoa sortzen saiatu ahal izateko".

Aldi berean, Nafarroako Parlamentuko batzordeak gobernuari eskatu dio "SPEren sustatzaileekin akordioak bilatu ditzala, planelako akzioak modu eraginkorrean martxan jartzeko beharrezko egitura-, giza- eta finantza-baliabideak jartzeko". Elkarlan aktiboa ere eskatu diote gobernuari.

Parlamentuko taldeek argudiatu dute ekonomia sustapena ez dela udalen egitekoa Nafarroako Gobernuaren eskumena baizik. Elkarlanerako nahia berretsi dute, "ez soilik baliabideak emanaz, elkarlan



Parlamentariak batzordean.

eremuak sortuz ere, Nafarroako beste eskualde batzuetarako erreferentzia izan daitezkeenak".

Hurrengo geltokia, Nafarroako Gobernuak

Sakanako Garapen Agentziatik "oso positibotzat" jo dute mozioaren onarpena. SPEren gauzatzea bezala, "adostasun eta elkarlanaren bidetik" segitzen duela ere nabarmendu dute. Sakanako Gara-

pen Agentziatik iragarri dutenez, Nafarroako Gobernuarekin harremanetan jarriko dira planaren sustatzaileak. "Nafarroako Gobernuko ordezkariekin adostu bezala, Sakanak bere kabuz Plan Estrategikoa ondu eta adostu du. Orain, Nafarroako Gobernuari dagokio elkarlanera biltzea eta dagozkion eskumenak erabiliz, Sakanako Plan Estrategikoaren gauzatzean parte aktibo izatea".

Iritziak

UPNko Coro Gainza Aznarezek adierazi zuen lanpostuak sortu behar direla, horretarako "denak busti behar dugu, industriaren ezarpena baztertu duten jarre-ak baztertu beharko dira". **PSNko Roberto Jimenez Alilik** nahiz eta herrialdeko eskualdeen berezitasunak aitortu, Nafarroa osorako planen alde agertu zen. Nafarroako Gobernuari diru-baliabideak jartzeko eskatu zuen.

Bilduko Bikendi Barea Aiestarnek plana sortzeko izan zen parte-hartzea eta haren pluraltasuna eta ibarreko ehuna sustatzeko asmoa nabarmendu zituen. Nafarroako Gobernuak bitartekoa jartzeko eskatu zuen. **Aralar-NaBaiko Juan Carlos Longas Garcia** plana egiteko "behetik gorako" metodologia goraiatu zuen, "Nafarroako beste eskualdeetarako eredu izan daitekeena, herrialdeko eskualde oreka lortzeko balio dezakeena". Garapen oreakuaren alde egin zuen, "jasan-

garria, ez edozeren trukeko garapen azkar bat".

Jose Migel Nuin Moreno IUkoak Sakanaren erreakzioa oso positiboki nabarmendu zuen. "Alternatibak bilatu zaizkio, krisiari eta egungo ekonomia politikari". Nafarroako Gobernuari baliabideak emateko konpromisoa eskatu zuen. **Geroa Bai**ko **Manu Aierdi Olaizolak** ibarreko eragileen arduraren eta inplikazioaren positiboa azpimarratu zuen. Adierazi zuen plana tresna berria dela eta garatu bitartean moldatu eta egokitu beharko dela. Planaren sustatzaileek eta Nafarroako Gobernuak ongi zehaztu beharko dute, jendearen inplikazioa eta gertutasuna mantentzeko". Azkenik, **PPko Ana Beltran Villalbak** plana sortzerakoan lortutako adostasuna nabarmendu zuen. Plana garatzean adostasun hori mantentzea eskatu zuen. "Denen onuraren alde, denek utzi beharko dute euren egitasmoaren zati bat".



Gaztagile diplomatuak

Abenduaren 31n, Idiazabal Gazta Jatorri Izendapenak 2014an nazioarteko lehiaketetan saria lortu zuten gaztandegiei aitortza egin zien. Idiazabal Gazta Izendapeneko Kontseilu Arautzaileko buru Jose Mari Ustarrozek izendapena eta Idiazabal gaztaren itzala eta izen ona zabaltzeko gaztandegiek egindako lana eskertu zuen.

Ekitaldian gaztandegi bakoitzak diploma bana jaso zuen. Haien artean Londongo World Cheese Awards txapelketan saritutako hiru sakandarrak zeuden: Balda,



Artola y otros (Beriain marka, Unanu), La Vasconavarra (Vasconavarra marka, Olatzagutia) eta Julen Karasatorre etxarriarra eta Nerea Luis lakuntzarra (June, Agurain).



Lakuntza

Abenduaren 27an mustu zen Lakuntzako kultur etxea. Musika eskola, jubilatuen egoitza eta erabilera anitzeko gelak hartzen ditu

Lakuntzako zineko kultur aretoa jendez lepo bete zegoela mustuzen Lakuntzako zine berritua. Eraikinak behealdean jubilatuen egoitza eta erabilera anitzeko aretoa edo kultur aretoa hartzen ditu eta goian musika eskola eta dantza taldearen entsegu gela edo hainbat ikastaro -yoga, soinketa eta abar- egiteko gela handia hartzen ditu. Mustutze ekitaldian Lakuntzako abesbatzak eta lakuntzarrez osatutako bi musika taldek hartu zuten parte. Zineko lanak bukatzeko herrita-

Zine berriari bizia ematera!



Herriko musikariek emanaldi ederra eskaini zuten zinearen mustutzean.

rrek auzolanen bidez egindako lana nabarmendu zuen Jose Ramon Garin alkateak, eta "herri honen alkate izatearekin harro" zegoela

aitortu zuen. Bestalde, Izaskun Igeltz eta Oihane Uribe zinegotziek zineari erabilpena eta bizia emateko deia egin zieten lakuntzarrei.

bazkide GALDETEGIA

Bete eta bota postontzira >> Jasotzeko azken eguna: **ilbeltzak 22**

Olaztiko, Etxarri Aranazko, Irurtzungo, Lakuntzako, Arbizuko eta Altsasuko (Iortia) liburutegietan.

Guaixeren bulegoan: **Foru plaza 23-1 Altsasu**

<< **edo bete online galdetegia!** >>

BIKAIN GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika Elektrizitatea Txapa Margotzea

FLORES S.L.
Nafarroako berezko txistorrak izan bat du
Txistor ekologikoa

Uztazabarrak - RIF. - Faxa: 948 460 499 ARBIZU

astekoa

barrutik
kanpora

Xabier Reparaz Extramiana

Ametsak eta amesgaiztoak

Badira aste pare bat urte berria sartu ginela. Urte zahar gau hartan egindako promesa askotxo jada apurruak izanen ditugun arren, oraindik buruan dugu pertsona moduan hobetzeko gure buruari egindako zina. Inguruan duguna gehiago baloratzea, gure ekintzen ondorioei neurria hartzea, maite duguna zaintzea... Ilbeltzaren hasierak ematen digun indar hau probestu eta

aldamenen ditugunei zabaltzeraino xurgatu beharko genuke inertzia kolektibo hau. Guk geuk egiten ez baditugu ziurrenik inork ez ditu gugatik egi bihurtuko gure ametsak.

Ametsak ez, baina amesgaiztoak beste kontu bat dira. Haiek bai egi bihurtu ohi dizkigutela besteek eskatu gabe. Guztiona dena bereganatzen adituak diren horiek dira trebe lan horietan.

Gure lurra zulatu, dardarazi, lehertu eta barranean duena aterra nahian dabilta zenbait petrolera gure inguruan. Gasa eta petrolio likatsua gurean ba ote den begiratu nahian, suntsitutako Euskal Herri bat utziko digute ordainetan. Fracking-aren kontrako legeak ditugun arren, borondateak erosi nahian Madrildik etengabe dabilta autonomietako gobernuekin ustezko hidro-

karburo hauen ustiaketan etekinak partekatuko dituzten promesak botatzen. Taxuzko politikari bati, ordea, ez zaio komeni oraindik halako tratuak onartzea. Gizartearen haserre hau teskunde aurretik pizteko arriskua ekidin nahiko dute oraingoz. Behin tramitea pasata, argi gai honekin zergertatuko den, diruaren borondateak ez baitu balaztarik.

Aurrekontu eskubidea

Iratxek agindutako inkesta batean, herritarrek berek adierazi dutenez, konponketa tailerren %14ak ez die bezeroei aurretik idatzizko aurrekontua eskaintzen. Dokumentu hau, nonegingo diren lanak eta hauen kostuak zehazten diren, alde batera utz daiteke bakarrik kontsumitzaileak espresuki uko egiten badiot.

Pertsona asko gaitzitura agertzen dira tailer batek konponketa batengatik kobratzen diogatik, haien ustez prezioa neurritz kanpokoa delako. Hala ere, askotan kontsumitzaile hauek, jakin jabe, aurrekontu bat osatzeari espresuki uko egiten dioten dokumentu bat sinatzen dute. Zentzu honetan funtsezkoa da kontsumitzaileak, tailerrean sinatu aurretik, edozein dokumentu arretaz irakurtzea.

Egindako lanaren fakturak sinatutako aurrekontuarekin bat etorri behar du eta aurrekontuaren osaketa soilik kobra daiteke azkenean bezeroak konponketa eskatzen ez bada.

Lanak egiten diren bitartean aurretik antzeman ez ziren matxurak agertzen badira, tailerrek kontsumitzaileari hauen prezioarekin batera jakinarazi beharko dio, eta konponketak bezeroak bere adostasuna ematen duenean bakarrik egin ahaliko dira. Dena dela, ez da arraroa kontsumitzaileek tailerrek aurretik ohartarazi gabe aurretik antzeman ez zen matxura batengatik fakturatu diela erreklamazioa eta honen ondorioz konponketa garestitu izana.

Gainera, tailerrek modu ikusgarrian kartel bat jarri behar dute non adierazi beharko diren lan ordu bakoitzeko tarifa eta zerbitzuen prezioak.

Arazoa are larriagoa da aurrekontua edo aberia ezagututa kontsumitzaileak ez konponetzea erabaki izan balu edo egiten den konponketarekin gorabeherak gertatzen direnean. Hori dela eta guztiz gomendagarria da beti aurrekontua eskatzea.

Iratxe

hara zer dien

Jolasaren garrantzia haurtzaroan

Arduratu gaitezen jolasten ez duten edo jolasten ez dakiten haurrekin. Hau hizlari bati aspaldian entzun nion esaldi bat da eta orduz geroztik gogoan geratu zait.

Winnicott (aurreko mendeko pediatra eta psikoanalista), haurrekin egindako lanagatik oso ezaguna izan zen. Berak sortutako teoria eta praktika, jolasaren inguruan eratu dira. Bere ustez, jolasa oso garrantzitsua da, haurraren baita helduaren bizitzan

ere: jolasa, berez, terapeutikoa eta sortzailea da, bizitzara gidatzen gaituen ekintza. Jolasten bada, transformazioarako eta hazteko aukera dago. Bere teoria askoz zabalagoa da, baina jolasaren ideia hau azaldu nahi izan dut.

Jolastea garrantzitsua da, haurraren garapenerako alderdi nagusietako bat. Ekintza atsegina eta sortzailea da eta etorkizunerako prestatzen gaitu, helduak garenerako. Jolastean haurrek inguratzen dituen mundua

maniatzen ikasten dute eta ingurunearekin harremanetan jartzeko trebetasunak garatzen dituzte.

Umea jolasaren bitartez komunikatzen da: jolasten den bitartean bere barrualdea adierazten du eta bere bizitzako gertakizunak irudikatzen ditu (beharrak, pozak, beldurrak, zailtasunak, nahiak, tristurak, ametsak...).

Honetaz aparte, ikasi, esperimintatu, irudimena landu, tentsioak askatu, harremanetan

jarri, sozializatu, gorputza landu eta garatu... hau guztia egiten dute haurrek jolasten duten bitartean.

Beraz, eman diezaiozun dagoen tokia eta har dezagun denbora eta espazioa haurrek jolas dezaten eta jolastu dezagun beraiekin. Agian, helduoi ere, ongi datorkigu berriz ere ume bihurtzea eta jolasten ez ahaztea!!

Narrea Iraurgi Arrieta
Psikologoa, Gestalt terapeuta

objektibo tik



Altsasu "kaka" bat da:

Edo hori pentsatzen dute txakur jabe askok, herria txakur kakaz jositako baidago. Ia ezinezkoa da lau pausu ematea txakur kakarik ikusi eta sufritu gabe. Eta hobe berdeguneetan ez sartzea. Animaliak horrenbeste maite dituzten horiek ikas dezatela ere herritarrek eta kaleak gehiago maitatzen.

objektibo tik: gutunak@guaixe.net

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net** edo **948 564 275** telefonoa.

gora/behera



Zinema

Emanaldiak eskuragarriagoak Altsasun, ikuslearen egunarekin.



Hanka motz

Hala geldituko da plan estrategikoa Nafarroako Gobernuak baliabideak jartzen ez baditu.

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Garazi Gartzia Mauleon
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.net

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Salburuordetza

SAKANA

Gidariak Sakanako Autobiaren zoruarekin kexu

Sentipen horiek jasotzen zituen whatsapp mezu bat asko zabaldu zen pasa den urte akaberan. Mank-eko buruak erantzunez, zoru berria hobea dela adierazi du Nafarroako Gobernuak

Nafarroako Gobernuak Lakuntza eta Bakaiku arteko Sakanako Autobiako (A-10) zorua berritu zuen irailean eta lastailean (6,8 km Gasteizko noranzkoan eta 6,1 km Iruñerakoan). Hura berritu ondoren ibilgailuen gidariak kexu dira. Batetik, autobiako zorua irregular gelditu dela eta gidatzerakoan nabari dela. Bestetik, euria egiten duenean autobiako zoru berriak ura ez duela behar bezala zurruputzen. Gidariak kexu dira galtzadan pilatzen den urarekin, bi eragin dituelako: lehena, beste ibilgailu baten atzetik joatean aurrekoak jasotzen duen urarekin ikuspena galtzen dela eta itsumustuan gidatzen dela; bigarrena, zoruan pilatutako urarekin ibilgailuak irrist egin eta bidetik aterata eta istripuak izan daitezkeela.

Erantzuna

Kontserbazio Zerbitzuko Mendebaldeko Negoziatu arduradun Patxi Ruiz Urmendiak adierazi duenez, “departamentuak egin-

dako analisiaren ondorio da zorua hobetzeko lanak”. Jakinarazi duenez, horretarako aipatu autobide-etako 2012ko eta 2013ko ezbehar-kopurua, istripuen tipologia, zeharkako marruskadura-koefizientearen batz bestekoa eta ezau-garri geometrikoak (radioak, peralteak, aldapak eta abar) izan dituzte kontuan. “Analisia kontuan izanik, iragazgaitasun, iraunkortasun eta uniformetasun handiagoa emateko eta, aldi berean, bere funtzionaltasun ezaugarriak (segurtasuna edo erosotasuna) hobetzeko zoruaren azaleko tratamendua egitea egoki jo zen”.

Gobernuak hotzean zabaldua-ko mikroglomeratuarekin berritu du autobiako zorua. “Kostu txikiko eta balio estetiko handiko tratamendua da, zerbitzu aldian zehar zoruaren bizitza baliagarria luzatu dezakeena”. Gobernutik erantzun dute zoruaren eta gurpilen arteko heltzea hobetu dela eta horrekin bide segurtasuna. Ruizek azaldu duenez, Sakanako Autobiako (A-10) beste zoru zati batzuk modu berean konpondu dira, “argi geratuz egokia dela”. Hala ere, aitortu duenez “egungo drainatze-tipologia aldatzen du eta ondorioz,



Sakanako Autobia Etxarri parean. Zoru berriak gidarien kexak ekarri ditu.

iragazgaitasuna handitzen da, baina aurretik joaten diren ibilgailuek proiektatutako ur kopurua handitzen du. Hala ere, asfalto horrek bide-segurtasuna hobetzen du”. Nafarroako Gobernutik adierazi dutenez, aurretik zegoen “zorua errodadura erosoagoa eta isilagoa zuen, batez ere euriarekin,

asfalto “lehor” sentipena sortuz, baina jarri berri den zoruak baino heltze ezaugarri nahiko txikiagoak zituen”.

Nafarroako Gobernuak 2012-2015 aldirako Leitzarari (A-15), Sakanako (A-10) eta Iparraldeko (A-1) autobideetako kontserbazio integralerako lanak eman zituzten. Hiru bide

horietan azken hilabeteetan egin dira mantendu lanek 834.486 euroko balioa dute. Nafarroako Gobernutik azaldu dutenez, aipatu autobideetan lanak egin aurretik errodadura zahartuta eta latz zegoen, agregakinen galera zuen eta azkenaldian zenbait tokitan konponketa txikiak egin zituen.

SAKANA



Errepresaliatuen senideak plaka agerian uzten. UTZITAKOIA

Errepresio frankistak hildako hautetsien izenak Parlamentuan

Espainiako Errepublikaren kontrako 1936ko estatu kolpean hildako 34 alkate eta 115 zinegotziren izen-abizenak jasotzen dituen plaka mustu dute

Francoren estatu kolpearen ondorioz hildako hautetsiei omenaldia eta aitortza egiteko Nafarroako Parlamentuan plaka bat mustu zuten astelehenean. Lehen solairura daramaten eskaileretan jarri zuten oroigarria. Tomas Dorronsorok (Iruñeko zinegotzi baten semea), Agirre ahizpak

(Lizarrako alkatearen alabak) eta Olimpia Plazak (Castejongo alkatearen alabak) utzi zuten agerian plaka. Hartan zera irakur daiteke: Nafarroako Parlamentuak, Espainiako II. Errepublikarekin izandako konpromisoarengatik Nafarroan eraildako hautetsien omenez eta haienganako errekonozimenduz.

Sakandarrak

Hildako kargu publikoen artean

zortzi hautetsi sakandar daude. Hiru alkate: Silverio Astiz Lakuntza (Arakil), Antonio Goikoetxea Otegi (Altsasu) eta Epifanio Gonzalez Villar (Ziordia, frontean hila). Lau zinegotzi ere badaude: Pedro Ihabar Arbizu (Arbizu), Felix Lopez Sanchez (Etxarri Aranzako udal gestorako kide), Isidro Zornoza de Jorge (Altsasu) eta Ramon Goikoetxea Etxeberria (Ziordia, frontean hila).

ZERGATIK JARRI AIRBUMP® A EETAN?



CITROËN C4 CACTUS BERRIA AIRBUMP® BABESAREKIN



CRÉATIVE TECHNOLOGIE

CITROËN nahigo du TOTAL KONTSUMO MISTOA (100KM/L) / CO2 EMISIOA (KM/G): CITROËN C4 CACTUS: 3,1 - 4,6/82 - 107

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. • ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.aufsanmiguel.com

» Altsasu

Altsasuko festen data airean

Aurten irailaren 13a domeka da, eta festak astebururik gabe burutuko liriteke. Festak aurreratzea edo galdeketa egitea daude mahai gainean. Parte-hartze Batzordeak ilbeltzaren 22an proposamenak aztertuko ditu eta Udalak ilbeltzaren 28an hartuko du erabakia

Altsasuko festak irailaren 13an hasten dira, Iraileko Gurutzearen bezperan, eta guztira 5 egun irauten dituzte. Aurten festak igandean hasi eta ostegunean bukatuko liriteke, hau da, astebururik gabe. 2009an festen inguruan egindako galdeketa festak beti irailaren 13an hastearen alde egin zuten altsasuarrek, baina data konplikatu hauek tokatzen direnean iritzi desberdinak sortzen dira beti.

Garazi Urrestarazu Zubizarreta alkateak (Bildu) nabarmendu nahi izan du Altsasuko festak Parte-hartze batzordean egituratu, erabaki eta aurrera ateratzendirela. "Aurtengo festen dataren gaia bertan aztertu zen, soilik aurtengorako litzatekeen proposamena egin zuten: jaien data aldatzea eta festak ostegunean, irailaren 10ean hasi eta irailaren 14an, astelehena bukatzea. Guk proposamena gure egin genuen eta 2014ko azken osoko bilkurara eraman genuen". Betiko egutegia mantentzeak unibertsitate ikasleak eta langile asko festetan ezinen zutela parte hartu argudiatu dute batzorde-kideek.



Neska-mutilak festetako etxajua lehertu berriren. ARTXIBOA

Beste proposamen bat

Abenduko osoko bilkuran gaia aztergai izan zuten udal taldeek. Batzordeko proposamenaz aparte, NaBai 2011k festen aurretik altsasuarrek aldaketaren arrazoiez informatzea eta herri galdeketa egitea proposatu zuen. Koalizioko eledun Unai Hualdek "egoki" jotzen ditu batzordearen argudioak. "Baina udal bilkurak aurretik hartutako akordio lotesleak ditu". Hualdek gogora ekarri zuen, bost urtero antzeko egoera izaten da eta argudio berengatik 2009ko lastailaren 4an herri galdeketa egin zuten udalak. 1.776 parte-hartzaileetatik 1.436k ez aldatzearen alde bozkatu zuten eta 332k baietz.

Urrestarazuk adierazi digunez, "gu ez gara inor Parte-hartze batzordearen gainetik erabakirik hartzeko eta ez genuen erabaki-

Ziordian eragina

Jakinik Altsasun festak aurreratzeke aukera dagoela, Ziordiko eta Altsasuko festak elkarri ez zapatzeko, Ziordiko Udalak aurtengo festak aurreratzea erabaki du. Irailaren 5ean hasiko dira, larunbatarekin, eta 8an despedituko dira, asteartean. Azken egun hori Koruko Ama Birjina patroia eragina da. Udalak finantzazioa jartzen du eta Errekakartea elkarreko batzorde bat arduratzen da urtero festen antolaketaz.

rik hartu, eta NaBai 2011k bere proposamena Parte-hartze Batzordea eraman zezala proposatu genuen, batzordean eztabaidatu eta erabaki daitezkeen festen inguruan dauden proposamenak".

» Arakil

Foruzaingoak legez kanpoko auto lasterketa eragotzi duela jakinarazi du

Forupoliziak jakinarazi duenez, hilaren 4ko gauean Etxeberritik Madotzera daraman errepidean legez kanpoko auto lasterketa bat egon zitekeela jakin zuen. Inguruan kontrola ezarri eta 17 ibilgailu geldiarazi zituzten, gidarien eta autoen dokumentazioa aztertzearekin batera. Horretaz aparte, gidari guztiei alkoholemia proba egin zieten eta inork ez zuten positiborik eman. Drogen testa zortzi gidarik pasa behar izan zuten eta haietako batek kanabis positibo eman zuen. Foruzaingotik gogorarazi dute errepideetan baimendu gabeko lasterketak egitea arau hauste larria dela: gida baimeneko sei puntu eta 500 euroko isuna.

» Altsasu

Alonso Podemos-Ahal Duguko idazkari nagusi

Altsasuko Podemos-Ahal Dugu taldeko idazkari nagusia Virginia Alonso Aparicio da. Bestalde, Iruñeko Podemos-Ahal Dugu taldeko idazkari nagusia Oscar Fresan izanenda (286 boto). Bere alboan Hiritar Kontseilua izanena da lanean, 11 kidez osatutako organoa. Hiritar Kontseiluko kideen artean dago Francisco Javier Guerrero altsasuarra, 181 botorekin.

» SAKANA

Sortu espetxe politikaren kontra

Asteartean Espetxe politika kriminalari stop! Presoak kalera! lelopean Sortuk kontzentrazioak deitu zituen, bezperako sarekadaren salaketa ere bihurtu zirenak. Etxarri Arantzen ehundik gora pertsona elkarrekin ziren eta Altsasun 100 bat. Presoek elkartasuna adierazten eta mobilizatzen segitzeko deia luzatu zen kontzentrazioetan. Aldi berean, larunbatean, 17:00etan Donostian egindako manifestazioan parte hartzeko deia luzatu zuten. Azken hori makina bat eragilek *Giza eskubideak*, *konponbidea*, *bakea* leloarekin deitu dute.

» Uharte Arakil

Familia barruko komunikazioa sustatzeko bitartekoak

Gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioari erreparatuko zaio helduden astetik aurrera Uharte Arakilen. Komunikazio hori sustatu ahal izateko hainbat gako aztertuko dituen ikastaroa prestatu da: seme-alabekin eta gainontzeko pertsonekin izaten den komunikazioa; beste engandik jasotzen den tratua, ondokoak nola tratatzen ditugun eta eguneroko harremanetan opatzen diren oztupoak. Eskolako Guraso Elkarteak eta Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta dute ikastaroa. Ikastaroa hurrengo hiru asteartean, 15:00etan, udaletxean (ilbeltzak 20 eta 27 eta otsailak 10) izanen da.

» Altsasu

Dantzalekuko azpiegituren kudeaketa emateko deialdia

Altsasuko Udalaren Atabo-Altsasu enpresa publikoak egindako deialdiaren arabera, Dantzalekuko ostalari-tza zerbitzua kudeatzeaz aparte, igerilekua, futbol zelaiak, atletismo pista, aldagelak eta Usolarraingo aisaldi gunearen mantenua eta garbiketaz arduratu beharko da hura hartzenduenak. Interesatuak eskaerak hilaren 26ra arte egin dezakete. Zerbitzu hori urte baterako eman nahi du udalak, hiru urte luza daitekeena. Urteko 31.200 euro ordainduko dio, 2.600 hileroko, beti ere fakturak erakutsita.

» Hiru udaltzain kontratatzeke oposizio deialdia

Altsasuko Udalak hiru udalagente kontratatzeke oposizio deialdia egin du. Lanpostu horietako bat txanda irekiko izanenda. Hauda, edozein herritar aurkezteko aukera izanenda. Gai nontzeko biak, berriz, igoera txandako lanpostuak dira. Azken horietan Nafarroako Administrazio Publikoko langileek izanen dute aurkezteko aukera. Interesatuak euren eskaerak udalaren aurkezteko 30 eguneko epea dute bihurtik aurrera.

Gaur egun Altsasuko Udaltzaingoa bost kidez osatzen dute: bi kabok, agente bat eta bi laguntzailek. Azken biak kontratatuak dira. Heldu den urte erdialdera plaza duenetako bat jubilatuko egingen da. Udalaren asmoa hutsik gelditu diren plazak pixkanaka betetzea da. Udaltzaingoa nahikoa langile ez zedela irizita, Altsasuko Udalak 2007ko martxoaren hasieratik udaltzainek gaueko txanda egiteari uztea erabaki zuten. Haien ordez Foruzaingoa aritzen da. Hala, gaur egun goiz eta arratsaldeko txandak egiten dituzte astegunetan eta goizekoa asteburutan.

»



Santa Agedarako atzera kontua

Nerea Navarro, Idoia Jimenez, Aitor Lara eta Iosu Apestegia dira aurtengo errege-erreginak

Ohiturari jarraituz hilaren 6an egin zen Altsasuko kintoen errege zozketa. 1997 urtean jaiotako 31 neskei eta 29 mutilari kartak banatuz aukeratu ziren arduradunak. Zortzikoa dantzatzeko ikasten ariko dira otsailaren 3ra arte.

arbizuko udala

JUBILATUEN TABERNA KUDEATZEKO IZEN EMATEA

Arbizuko udalak jakinarazten du:

Jubilatuena taberna kudeatu nahi duenak bere izena eman dezake udaletxean, 10:00etatik 14:00etara otsailaren 13ra arte.

Baldintzak:

- Jendaurrean egongo diren pertsonak, euskaren ezagutza izan behar dute.
- Eskaintza ekonomikoa aurkeztea.
- Kudeaketa plana aurkeztea.



ARBIZUKO UDALA

Arbizun, 2015eko urtarrilaren 13an.

LARRAZA
ADMINISTRACIÓN DE FINCAS

Jose Larraza Legarra
Etxebizitza administratzailea
Kolegiatu zenbakia: 378

Bizilagunen komunitateak
Etxebizitza administrazioa

Etxaburua kalea, 1 beheko solairua
31013 Berriozar
Telf.: 948 065 570 Faxa: 948 063 634
Jose.larraza@gmail.com

Ezkaba S.L.
Suteen prebentzio sistemak

INSTALAZIO ETA MANTENTZE-LANAK

- Su-itxalgailuak
- Biesak
- Sute-zentralak...

ESKAINITZA BEREZIAK

- Auzokideen komunitateak
- Ostalaritza
- Abeltegiak

Iruñea
948 382 271 - Maturak: 671 619 018
www.prevencionezkaba.com

» **Arbizu**

Fran Balda espetxeratua

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Eloy Velasco epailearen aginduz astelehenean atxilotu zuten Fran Balda eta epaileak Soto del Real kartzelansartzea agindu du. Arbizuarrarekin batera beste bi atxilotu espetxeratzeko agindu zuen epaileak, gainontzeko 13ak aske gelditu ziren. Velascok Baldari "Herrira-n jardutea debekatzeko dion kautelazko neurria haustea, erakunde terroristako kide izatea, hurafinantzatzea, gizarte segurantzari iruzur egitea, zerga iruzurra eta dirua zuritzea" egotzi dio.

Atxiloketa

Astelehenean, 6:50 aldera, Fran Balda atxilotzera joan zen Guardia Civila Arbizura (10 patrol eta 2 furgoneta txuri). Etxean harekin zegoen ama eraikinetik ateratu eta etxea miazten 9:50 arte egon ziren. Atxiloketaren berri izan

bezain laster hainbat herritar Baldaren etxebizitza inguruan elkartu ziren. Tentsio uneren bat izan zen senideek Guardia Civilei kontu eske joan zirenean. Baldarekin batera, miaketatik plastikozko bi poltsekin ateratu ziren Guardia Civilak. Madrilera eraman zuten zuzenean, Tres Cantos kuarterelara.

16 atxiloketekin (12 abokatu) ETaren "kartzela fronteari eusten zion finantza egitura" desegin dela adierazi zuen Espainiako Barne Ministerioak. Iturri horrek Balda eta beste hiru atxilotu Herrira erakundeko diruzaintzat jo zituen. "Epaitegiak haren jardura eten arren ETaren Espainiako espetze fronteari eusten zion finantza egitura aktiboei babes ekonomikoa ematen segitzen zuten".

Ministerioak zabaldu duenez, "Herrirako diruzain gisa atxilotutakoek legez kanpo utzitako Amnistiaren Aldeko Batzordeak



Herritarrek Baldari animoak ematen.

eta Askatasunaren ekonomi baliabide berak kudeatzen zituzten. Gainera, teknika berak erabiltzen zituzten". Egitekoen artean abokatuei euren lanagatik ordaintzea zegoela ere jakinarazi du.

Segida

Ministerioak jakinarazi duenez, 2013ko irailaren 30ean (Herrira-ren kontrako sarekada) eta 2014ko ilbeltzaren 8an (EPPKren mintzakidetzaren atxiloketa) egindako sarekadak osatu zuten astelehenekoak. Balda aurrenekoan atxilotu zuten. Epaileak "talde terroristako kide

izatea, goratzea eta finantzatzea" leporatu zuten sarekada hartan atxilotutako 18ei. Aldi berean, Herrira-ren jardura bi urterako etetea agindu zuen. Lau egun atxilotuta egon eta epailearen aurrean akuzazioak ukatu ondoren aske gelditu zen Balda, 15ero sinatzeko beharrek, besteak beste.

Orduan atxilotutako 18ek auzitara eraman dute Espainiako Gobernua. Atxilotu berritan haiei buruzko datu ugari zabaldu zuen Ministerioak. Errugabetasun presuntzioa urratu zela ere argudiatu zuten.

Deialdiak

Baldaren espetxeratze agindua jakin berritan, herenegun, herri batzarra egin zuten Arbizun 200 bat pertsonen herri batzarra egin zuten. Bildutakoek "egun hauetan jaso diren eraso ez demokratikoei erantzun zabalak antolatzeko" deia egin zuten. Aldi berean, bi mobilizazioetan parte hartzea deitu dituzte herritarrek. Batetik, larunbatean, 17:00etan, Donostian makina bat euskal eragilek deitutako manifestaziora joatea. Bestetik, eta Baldaren espetxeratzea salatzen, otsailaren 1ean, 18:00etan, Arbizun egingen den Sakana mailako manifestaziora deitu dute. Batzarraren ondoren kontzentrazioa egin zuten plazan. Atxilotuen askatasuna eta polizia indarrek alde egitea eskatzen zuten kartelak erakutsi zituzten. Astelehenean 300 izan ziren sarekada salatzen batzarraren parte hartu eta ondorengo taldekako kontzentrazioan parte hartu zutenak.

Ikasle ohien premia, hobetu ahal izateko



Aralarko Mikel Donea institutuko zuzendaritzak ikasle ohiei inkesta betetzea eskatu die. Segi dituzten ikasketetan nola moldatu diren jakin nahi dute, institutua hobetzeko

Ikastetxeko zuzendari Javier Casteigek azaldu digunez, 2010 eta 2013 urteen artean institutua utzi eta unibertsitatean edo goi ziklotan ikasten jarraitu duten 100 bat ikasleri postaz bidali diete informazio eskaera. "Galdetegia laburra da, 10 minututan erantzuteko modukoa". Zuzendariak azaldu digunez, inkesta honakoek osatzen dute: ikasketak noiz bukatu zuten, segidan zein ikasketak mota aukeratu zuten, zein metodologia mota aurkitu duten, nola moldatu diren eta institutuan zer egin daitekeen. Azkenik, institutuan egindako aldieren balorazioa ere eskatu zaie ikasle ohiei.

Zuzendariak azaldu digunez, "badakigu akademikoki ongi prestatuta ateratzen direla. Baina hobetzeko institutuan egiten dugun hausnarketaren parte da hau. Ikasle izandakoak iturri garrantzitsu bat dira". Ez da institutuak halako inkesta egiten duen aurreneko aldia. Casteigek gogora ekarri duenez, "zuzendari izan nintzen aurreko aldian ere egin zen, duela 10 bat urte. Baina denbora hori mundu bat da hezkuntzan, dena aldatzen da. Ikasle en ustez zer egin edo aldatu dezakegu hobetzeko, hori jaso nahi dugu". Eta gaineratu du, "erantzuna emanda nahikoa laguntza emanen digute".

Abenduan banatu zituzten inkesta eta ilbeltza despeditu arteko epea dago. Horretarako, ikastetxearen weborri-

Arbizuko Udalak

Baldaren kartzelatzea gogor salatu du



Astelehenean 16 euskal herritarren atxiloketaren, Fran Balda arbizuarraren eta beste bi euskal herritarren kartzelatzearen aurrean, Arbizuko Udalak, lehenik eta behin babes osoa adierazi nahi die Baldaren senitartekoei. Udalak gaineratu duenez, kartzelara bidali dituzten 3 euskal herritarrek, Balda tartean, "presoen eskubideen defentsan aritzen dira, pertsonen

giza eta defentsa eskubideak babesteko lanean". Horregatik beraien kartzelatzea "gogor" salatu du Arbizuko Udalak. Halaber, Udalak adierazi duenez, "atxiloketa hauek Euskal Herrian irekitako bake, demokrazia eta askatasunaren bide berriaren kontrako erasoak dira. Estatu espainolak, berriro ere, bere izaera ez demokratikoa erakutsi du. Ilbeltzaren

10ean milaka euskal herritarren aldarrikapenari jaramonik ez, eta oinarritzko eskubideak urratzearen aldeko apustua egin du".

Manifestatzeko deia

Udalak larunbatean 17:00etan Donostian eta otsailaren 1ean, 18:00etan, Arbizun burutuko diren manifestazioetan parte hartzeko deia zabaldu du.

Zergatik da .eus beste edozein domeinu baino hobea zuretzat?

Ikuspuntu asko biltzen dituen puntua: zurea, auzokidearena, lagunarena, lagunaren lagunarena.

Zure ideia, produktu, zaletasun eta gustuentzat erreferentzia puntua.

Nor garen eta nondik gatozen jakiteko abiapuntua. Guk bezala hitz egiten dutenekin kontaktu puntua.

Interneten bereizten gaituen puntua.

Gure enpresa, langile, ikasle eta irakasleentzat euskarri den puntua.

Gure komunitatearentzat, kulturarentzat eta zuretzat puntu eta jarraia izango dena.

Anima zaitetz eta sortu zure .eus domeinu-izena. Informazio gehiago www.domeinuak.eus webgunean

Hemen duzu zure puntu berria



gure domeinua

Lakuntza



Aste osoan entsegutan egon dira astelehen iluntzean denak behar bezala jotzeko.

25 urtez danborra astinduz

Larraitz Amadoz Lazkano

Lakuntzan danborraren hotsak aspalditik dauka bere lekua. 25 urte etenik gabe, ilbeltzaren 20an gauerdian jendetza biltzen da herriko enparantzan. Aurten ere halaxe izanen da, hala ere, urte berezia izanen dute lakuntzarrek 25. urteurrena betetzen delako. Beste behin ere Lakuntzako Pertza elkartetik sukaldariz jantzita irtengo dira, txano eta gerriko gorriarekin, horrela, herriko plazarako bidea eginen dute danbor eta botilekin eskuan. Aurten gainera urteurrena dela San Saastinetako txupinazioa botatzea egokitu zaie.

Danborrada egitearen ideia 1990. urtean sortu zen lagun koadrila baten inguruan. Asmo horrek forma hartu eta urte hartako San Saastin jaietan irten ziren aurreneko Lakuntzako kaleetan. Lehen urte hartan sekulako izotza bota omen zuen, baina eguraldi horrek ez zuen lakuntzarren nahia uxatu. Bakoitzak etxetik ahal zuena ekarri zuen, danborrak, tinbalak, kristalezko botilak, txirulak... denetarik aurkitu zitekeen lehen danborradan. San Saastin Martxa, esaterako, herriko akordeoilari batek mikrofonoaren laguntzaz jo zuen, horrela, musikaren doinuarekin herrian barna aritu ziren.

Urtez-urte San Saastin martxa horrek geroz eta indar handiagoa

hartu du herrian eta danborradan geroz eta jende gehiagok parte hartzen du. Beteranoendako instrumentu protagonista danborra izan ohi da beti, hasiberriendako berriz, kristalezko botila eta koilara txikia. Hori ere urteekin aldatu egin da, garai batean soilik danborrak izaten zituzten, baina gaur egun iraganen kristala ateratzeko ohiturarekin jarraitu nahi dute. Danborrada egiteaz aparte, 1997an ohorezko txanoak banatzen hasi ziren, lehenengo txano hori danborradan parte hartu zuen lehen emakumeari eman zitzaion. Hala ere, gaur egun arte urtero banatu dituzte ohorezko txanoak herriko alor desberdinetan, kirolean edo hainbat lanbidetan aritu direnei, herriagatik lan egin duten pertsoneri.

Urteurrena

25. urteurrenerako berritasun batzuk prestatu dituzte. Bi abesti berri joko dituzte enparantzan, bata Otsagabia biribilketa izenokoa, eta bestetik, Pamplonesaren Lehenengo diana. Horretaz aparte, eguraldiak laguntzen baldin badu, herriko kaleetan arituko dira eta danbor handi bat ateratzeko asmoa dute. Dena dela, aurten ere ohorezko txanoak banatuko dira herriko hiru pertsona ezagunei, beren lana, parte hartzea eta izaera omentzeko.

Egitaraua

- >> Ilbeltzak 17, larunbata**
17:30etan Sakanako pilota txapelketako finala, Behar-zana pilotalekuan.
19:00etan Txupinazioa. Izengabeak txarangarekin kale animazioa.
20:00etan Auzatea eta buruhandiak.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Oharkabe taldearekin.
21:30ean Zezensuzkoa.
24:00etatik 2:00etara Dantzaldia Oharkabe taldearekin.
- >> Ilbeltzak 18, igandea**
13:00etan Aizkolariak (Lopez eta Rekondo) eta harrijasotzailea (Urrutia), plazan.
13:00etan Erraldoi eta buruhandiek kalejira.
13:00etan Auzatea.
17:00etan Danz jolas jaia Zirika Zirkusekin, plazan.
20:00etan Auzatea eta buruhandiak.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Duo Ametsekin.
21:30ean Zezensuzkoa.
24:00etatik 2:00etara Dantzaldia Duo Ametsekin.
- >> Ilbeltzak 19, astelehena**
12:00etan Piperropilak udaletxean utzi.
13:00etan Piperropil txapelketa, plazan.
13:00etan Auzatea.
18:00etan Danborrada txikia musikarekin girotuta.
18:30ean Txokolatada, gurasoek emana.
20:00etan Auzatea eta buruhandiak.
19:00etatik 22:00etara Dantzaldia J Elebitanekin.
21:30ean Zezensuzkoa.
24:00etan Danborrada herriko plazan.
- >> Ilbeltzak 20, asteartea**
6:00etan Aurora.
11:00etan Erromeria San Saastin ermitara.
12:00etan Meza ermitan.
13:00etan Auzatea, Lakuntzako Pertza elkarteak emana.
18:30ean Elai Alaiako dantzari txikiak, plazan.
19:00etan Alkate dantza.
20:00etan Auzatea eta buruhandiak.
19:30etik 21:30era Dantzaldia Iñakirekin.

Olatzagutia

San Sebastian ospakizuna

Urbasako portuko bide bazterreko ermitaren titularraren eguna izanen da asteartean. Eguerdiko elizkizunerako zabalduko dira ateak. Handik atera ondoren, auzotarrek prestatutakoa dastatzeko aukera izanen dute. Udalak ogia eta ardoa banatuko ditu. 17:00etan

arrosarioa izanen da ermitan. Otoitza bukatu ondoren, ermitako estalpean txokolatea eta erroskilak banatuko dituzte. San Sebastian ospakizunak 19:30ean despedituko dira, frontoian, ardoa eta gazta banatuko dira han eta trikitilariak jarriko dute doinua.

SAKANA



Iturmendiko kofradiak 325 urte inguru ditu. ARTXIBOA

Bihar San Anton

Dorraoko, Bakaikuko eta Urdiaingo kofradiek bihar ospatuko dute euren eguna. Iturmendiko domekarako utzi du

Mandazainek XVII. eta XVIII. mendeetatik XIX. era arte gurean izan zuten ekonomia jardunaren lekuko biziak dira San Anton kofradiak. Saindua animalien eta abeltzainekin eta abereekin zerikusia duten lanbideen babeslea da. Eta haren izena duten kofradiek euren eguna ospatuko dute asteburuan. Hildako kofradeak gogoratzeaz aparte, karguak berrituko dituzte ibarreko lau kofradiek. Ospakizuna bazkari ederrekin despedituko da.

Dorrao

San antondar dorrobarrak bihar elkartuko badira ere, gaur prestatuko dute biharko gosaria. Bihar, 9:00etan, elizan dute hitzordua. Hildako kofradeen omenezko elizkizuna eta gero priorearen etxera joanen dira. Han erresponsua (Aita Gurea eta Agur Maria) errezatu ondoren elkarteko bidea hartuko dute. Itur-aldea elkarteko mahaien bueltan gosalduko dute kofradeek. Batzuek karta-joko eta hizketaldiak luzatuko dute egonaldia, besteak pasiatzera aterako dira. Baina guztiak ere 15:00etako bazkarian elkartuko dira atzera ere.

Bakaikuko

Hitzordua 13:00etan dute jarria Bakaikuko San Anton kofradiako kideek, elizan, mezara joateko. Handik atera eta elkartean, 14:30ean, anaitasun bazkaria izanen dute. Giroa alaitzeko akordeoilariaren laguntza izanen dute. Sainduaren egunaz aparte kofradiaren 300. urteurrena ospatuko dute san antondar bakaikuarrek. Horregatik, aurtengo ospakizunak bereziki ere badu. Elizkizuna eta gero ateratako talde

argazkiaren kopia bana jasoko dute arratsaldean bertan kofrade guztiek. Horretaz aparte, 1715etik kofradiaren martxa jasotzen duen akta liburuaren kopia digital bana ere jasoko dute san antondarrek. Pasa den urtean liburua Nafarroako Liburutegi Nagusira eraman zuten, Iruñera. Hango adituek liburua zaharberritu eta digitalizatu egin zuten. Egindako lanaren ordainetan han liburuaren kopia digitala gelditu da.

Iturmendi

San Antonen eta San Migelen irudia duen bandera aldean dutela, san antondar iturmendiarrak domekan ospatuko dute euren eguna. Kofradeak 11:00etako mezan elkartuko dira. Ondoren, apaiz etxean batzarra egingen dute, kontuak zertan diren jakiteko eta egoki jotzen bada arduradun berriak aukeratzeko. Hildako kofradeen aldeko erresponsua errezatu ondoren, Aritzaga elkartean bazkaltzera elkartuko dira.

Urdiaingo

Bihar eguerdian elizkizunean elkartuko dira san antondar urdiandarrak. Joan den urtean kofradian bajarik izan ez bazen ere, aurreko urteetako hildako kofradeak izanen dituzte gogoan mezan. Garai batean meza ondoren animaliak bedeinkatzen zituzten, horien faltan bedeinkapena egingen du apaizak eta San Antonen omenezko kanta abestuko dute.

Eliz aldamenean dagoen Tintinurri elkartean gosaldia ondoren, herriaren etxean batzarra egingen du kofradiak. Kontuak egunean jarri eta karguak berrituko dituzte atzera ere. Aitziber elkartean bazkaita joanen dira eta hura despeditutakoan, maiordomoen etxetan jan-edanak izanen dituzte.

nc
nerea cenoz
 nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatu (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacnoz.com
 nereacnoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

Estafeta 16, atzea · Lakuntza
 (Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

asi arreta eta orientazio psikologikorako zentrua

Arantxa Sueskun Igoa
 PSIKOLOGOA - PSIKOTERAPEUTA

- Intseguritatea, beldurrak
- Bizi kalitatearen hobekuntza
- Agresibitatea, lotsa.....

Urbasa kalea 15, behea
 31800 - Altsasu (Nafarroa)
 669 367 422



GRUPO TANATORIO

IRACHE

TANATORIO TALDEA

948 564 355

679 160 116

(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com

Oroigarriak



Guaixe
KOMUNIKAZIOA

948 564 275



Jesus Extramiana Cameno

Abenduaren 31n,
66 urte zituela,
gure anaiak utzi gintuen Madrilen.
Betiko gure bihotzetan.



Micaela Galarza Gabirondo

X. urteurrena

Zure senarrak,
seme-alabek
eta ilobek
bihotzean zaitugu.

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIRIETZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunea: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**

Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Lana/ Negozioko

LAN ESKAITZA

Lan poltsa Andra Mari ikastolan. Garraio eta jantoki begirale ordezkapenatarako lan poltsa osatzeko deialdia. Bidali Cvak etxarri@ikastola.net helbidera gaia "garraio/jantoki lan poltsa" dela zehaztuz edo ikastolako idazkaritzan aurkeztu utzarrilak 21 a arte.

Ikastaroak

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948-46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

Forem Navarra - CCOO ikastaroak.

Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

Oharrak

Jaiotzazaleen zozketa: 479 zk.

Zozketa. Pilotaria NAUN Etxarri Aranazko nesken pala taldearen zozketaren zenbakiak: Errigora saskia: 704; Tablet: 35.

Iruñeko euskarazko telebistaren alde. Xalota telebistak Iruñerrian euskara hutsean emititzen hasteko 50.000 € behar ditu. Diru ekarpena non? www.karena.eu/proiektua/xalota-telebista-iruñerrian edo Iruñeko Karrikiri Euskal dendan (Xabier Karrika 4) eta Katakarak liburudendan (kale Nagusia 54).

EHE ren zozketa. Edinburgon 2 lagunendako egonaldia 348 zb txartelak eskuratu du. Zenbaki sarituaren jabea euskaltzale@eusherrianeuskaraz.org e-postara mezua bidal dezala.

CAF-ELHUYAR sariak. Hiru kategoria daude: Dibilgazio-artikulu originalak (2000 euroko saria), zientzia-kazetaritzaren arloko lanak (2000 euro) eta zientzia gizartearen sorkuntzabeka (5000 euro). Lanak 2015eko otsailaren 12a arte bidal daitezke, Elhuyarren egoitzara (Zelai Haundi kalea 3), Osinalde industrialdea, 20170 Usurbil) edo cafelhuyarsariak@elhuyar.com helbide elektronikora.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen

jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotza behar dugu lelopean. Ekarpeneak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

Tartalariendako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrontean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzin: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurren errotzioak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikin. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinikak) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkideak izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigososefinaarreguilaganak@gmail.com edo amigososefinaarreguilaganak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixen txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 edo izena eman edo bete formularioa gure webgunean [xe.net.](http://www.guai-</p>
</div>
<div data-bbox=)

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatrikulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoek elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzen gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarri edo hornitzaile desberdinei eskatzuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarrik eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioak, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetal, ezti, arrautzak, garga-ardoa, lekaleak, ozipina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oiahalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehena eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalei, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Asteleheneretan Etxarri Aranzan, astearteetan Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo [mank.com posta elektronikoa.](mailto:immigrazioa@sakana-</p>
</div>
<div data-bbox=)

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunea (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaituz Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, asteen behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzin du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunea.

Iparraldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) edo 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen ikasbatuazek eremu erdaldukoak diren eta ikasketak D eremuan egiteko beste eskualedeetara joan behar duten ikasleek garraio laguntzeko Euskadiko Kutxan hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

Emakumeendako doako aholkularitza juridikoa. Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko mantenu-pentsioa, tratu txarrak sufritzen ari bazara, dirurik ez baina dibortziatu nahi bazula, izateko bikoitearen eta ezkontzearen aldeak... Emakumearen Bilgunera jo, Altsasuko Gure Etxean (948 564 823 edo berdintasuna@altsasu.net).

Ezgaiztuen Elkarteak bazkideak eta laguntzaileak behar ditu. Sakanako Ezgaiztuen Elkarteak bazkide kanpaina martxan jarri du. Horretarako 660 29 96 17 telefonora hots egin behar da. Bestalde, Sakanako ezgaiztuen aisia behar dute. Laguntzaile izan nahi baduzu deitu 649 189 249 (Eladia). Eskerrik asko Sakanako Ezgaiztuen Elkartetik.

JAIOTZAK

- Amets Larrion Gartzandia, abenduaren 18an Lakuntzan.
- Nariah Owusu Ansah, abenduaren 19an Altsasun.
- Izei Eskisabel Larrañaga, abenduaren 29an Bakaiikon.
- Laura Santiago Martinez, abenduaren 30ean Olaztin.
- Maria eta Miguel Artieda Perera, abenduaren 31n Izurdiagan.
- Agiri Malo Beregaña, abenduaren 21ean Altsasun.
- Urko Borrega Velilla, abenduaren 25ean Altsasun.
- Ioritz Askaray Ortiz, ilbeltzaren 5ean Altsasun.

HERIOTZAK

- Martin Lasa Razkin, abenduaren 8an Etxarri Aranatzin.
- Esteban Mundiñano Fernandez, abenduaren 17an Etxarri Aranatzin.
- Aimar Barandiaran Etxeberria, abenduaren 23an Etxarri Aranatzin.
- Ana Maria Arretxe Goñi, abenduaren 25ean Arbizun.
- Andres Salinas Martinez, ilbeltzaren 6an Lakuntzan.
- Victorio Lazkoz Berastegi, ilbeltzaren 7an Arbizun.
- Migel Angel Visiers Bengoetxea, abenduaren 27an Altsasun.
- Rufino Mazkiaran Guridi, ilbeltzaren 7an Altsasun.
- Juan Jose Aldasoro Flores, ilbeltzaren 12an Arbizun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

HERRI KIROLAK

AIZKOLARIAK LAKUNTZAN: Lakuntzako San Saastin festetan atzera ere herri kirolei tokia egin diete. Igandean, 13:00etan, Lo-

pez eta Rekondo aizkolarien eta Urrutia harri jasotzailearen saioa hartuko du herriko plazak.

Pilota

Nortzuk dira Sakanako pilotari onenak?



Aurreko urteko txapelketako sari ematea, Lakuntzan.

Sakanako Pilota Txapelketaren finalak jokatuko dira bihar, larunbatean, Arbizon eta Lakuntzan

Pilotak badu harrobia gurean. Horretarako lan handia egiten dute Sakanako pilota klubek. Pilotarien lana sustatzeko, aurretik

Sakanako Pilota Txapelketaren 27. edizioa jokatuko da. Adin guztietako 100 pilotari baino gehiago lehiatu dira. Txapelketan parte hartu duten klubak Olaztik Sute-gi, Etxarri Aranazko Gure Pilota, Altsasuko Pilotajauku, Arbizuko

27. Sakanako Pilota Txapelketa

Larunbatean Arbizon (16:30ean)

Umeak 1: Unax-Iker (Gure-Pilota) / Imaz-Lakuntza (Aldabide)

Kimuak 1: Gabirondo-Imaz (Pilotajauku) / Imaz-Gorrotxategi (Aldabide)

Haurrak 2: Lopez de Zubiria-Senar (Gure-Pilota) / Barranco-Inhar (Gure-Pilota)

Haurrak 1: Jaka-Gamboa (Gure-Pilota) / Mentxaka-Gonzalez (Sutegi)

Kadeteak: Olaetxea-Goikoetxea

(Aldabide) / Petriati-Galartza (Aldabide)

Larunbatean Lakuntzan (17:30ean)

Txikiak: Bakaikoa-Zabala (Lakuntza) / Egoi-Aitor (Sutegi)

Umeak 2: Senar-Cocera (Lakuntza) / Eneko-Aitor (Sutegi)

Kimuak 2: Arraiza-Ondarra (Lakuntza) / Altzelai-Palomares (Gure-Pilota)

Gazteak (lau terdian): Grados (Pilotajauku) / Arbizu (Pilotajauku)

Nagusiak: Arruti-Agirre (Aldabide) / Jokin-Julen (Sutegi)

Aldabide eta Lakuntzako kluba izan dira. Ia larunbatero izan dituzte partidak. Orain, pilotari onenak nortzuk izan diren jakiteko ordua

da, finalak jokatuko baitira bihar, larunbatean, Arbizon (16:30ean) eta San Saastin festetan murgilduko den Lakuntzan (17:30ean).



Ganboa-Araña eta Olaetxea-Goikoetxea Esteribarreko txapelkunordeak

Asteburuan Esteribarreko bailarako Pilota Txapelketako finalak jokatuko ziren. Tartean hurren mailan Oskozek eta Cuairánek 18-5 irabazi zieten Gure Pilotako Ganboari eta Araña eta kadeteetan Oberenako Matak eta Cordonek 22-5 hartu zituzten menpean Aldabideko Olaetxea eta Goikoetxea.

Ezkurdia-Zabaleta goian

BINAKAKOAN JOKATUTAKO LAU PARTIDAK IRABAZI DITUZTE (4 PUNTU). BERASALUZE II.A-ZUBIETA 22-15 HARTU ZITUZTEN MENPEAN LARUNBATEAN ETXEBARRIN

Aurreko urtean 6 jardunaldi pasa behar izan ziren euren lehen garai-pena lortzeko, eta aurretik hasieratik irabazten hasi ziren Ezkurdia eta Zabaleta. Momentuz jokatutako lau partidak irabazi dituzte, nagusitasunez, eta Binakako txapelketaren buruan daude. Beraiek dira lau partidak irabazi dituen biko bakarra. Bestalde, Aitor Zubietak berarekin bikotea osatzen duen Berasaluzeko ongi hasi ziren, irabaziz, baina egun jokatutako lau partidetatik bi irabazi dituzte. Denan den, txapelketa ez da hasi besterik egin eta edozer gerta daiteke.

Larunbatean Etxebarrin frontoia goitik behera bete zen Ezkurdia-Zabaleta eta Berasaluzeko Zubietak bikoen arteko lehia jarraitzeko. Hasieran Berasaluzeko eta Zubietak ibili ziren finago. 4-9 aurreratu ziren eta Pablito Berasaluzeko bikain zegoen aurrealdean. Baina Ezkur-



Zabaleta, Ezkurdia, Berasaluzeko eta Zubietak material aukeraketan.

diak eta Zabaletak pazientzia izaten jakin zuten eta egoerari buelta eman zioten. Partida erdialdetik aurrera Berasaluzeko behera egin zuten eta akats ugari egin zituzten erremateetan. Ezkurdia, bereziki indartsuaren esker, Bera-

saluzeko frontisetik aldendu zuten, eta Zabaletak gogor astindu zuten pilota. Bukaeran, 22-15 gailendu ziren sakandarrak.

Ezkurdia eta Zabaleta, pozik
Kontentuz daude Zabaleta eta

Binakako 5. jardunaldia

Irujo-Cecilio - Artola-Albisu (ostiralean Atanon. ETB1)

Olaizola II.a-Beroiz / Oinatz-Aretxabaleta (larunbatean Labriten)

Berasaluzeko II.a-Zubietak / Xala-Merino II.a (igandean Mungian. ETB1)

Retegi Bi-Rezusta / Ezkurdia-Zabaleta (astelehenean Tolosan)

Sailkapena

1. Ezkurdia-Zabaleta	4 puntu
2. Oinatz-Aretxabaleta	3 puntu
3. Artola-Albisu	2 puntu
4. Irujo-Barriola	2 puntu
5. Retegi Bi-Rezusta	2 puntu
6. Berasaluzeko II.a-Zubietak	2 puntu
7. Xala-Merino II.a	1 puntu
8. Olaizola II.a-Beroiz	0 puntu

Ezkurdia. "Hasieran urduri aritu gara, baina etxeko lanak ongi eginak ekarri ditugu, ez da euren egun onena izan, eta irabaztea lortu dugu" adierazi zuten Ezkurdia. "Bikotea egiten ari direla" hori da euren emaitzen onen gakoak. "Frontoia ongi estaltzen ari gara, eta defentsan eta erasoan asko hobetu dugu. Zabaletak ezkerre ongi babesten du, eta nik zabalera. Nik pilota txarrak hartzen eta onak Zabaletari uzten. Gainera, Zabaletak izugarri jotzen du. Bikotea egiten jarraitu behar dugu. Gainera, biak konfiantzarekin gaude, gaizkak hobeto ateratzen dira. Eta horrela segitzen saiatuko gara. Oraindik asko gelditzen da eta partidaz partida joan behar dugu, txapelketa luzea delako"

adierazi du Ezkurdia.

Zubietak, sentsazio onekin

Aitor Zubietak onartu zuten partida edonork irabazi ahal zuela, baina beraren eta Berasaluzeko akatsak partida galtzera eramanez zuztu. "Akatsak egin ditugu, ez dugu tantoa bukatzen jakin eta horrek mina egin digu. Baina ez zaio buelta gehiagorik eman behar. Joko ona egiten ari gara eta gauzak aterako dira. Finean, boladak izaten dira eta gauzak ongi egiten jarraitzen badugu, irabazi dezakegu" azaldu zuten Etxebarrin atzelariak.

Larunbatean Xala eta Merino II.a izango dituzte arerio Berasaluzeko eta Zubietak. Aldiz, Retegi Bieta Rezustaren kontra ariko dira Ezkurdia-Zabaleta.

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

Sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

GANUZA
SUKALDEAK
Sukalderako altzariak

Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Etxetresna elektrikoak

Tel: 948 460 203 Fax: 948 460 673
c.ganuzak@cocinasganuzak.com
www.cocinasganuzak.com
Etxerriko industrialdea
ETXARRI ARANATZ

Irristaketa



Ioseba Fernandez sariarekin.

Ioseba Fernandezi Kirol Merituko Ordena

Asteartean jaso zuen izendapena, Kirol Kontseilu Gorenean

Ioseba Fernandez irristalari iturmen-diarrak Kirol Merituko Ordena jaso zuen asteartean, Espainiako Kirol Kontseilu Goreneko zuzendari nagusi Ana Muñozen eskutik. Aipatu izendapena 2013an egin zioten iturmendiarrari, baina asteartean jaso zuen oroigarria, Kirol Kontseilu Gorenak Europako eta Munduko Irristaketa Txapelketako txapeldunei eta irristaketa artistikoko txapeldunei egindako harreran.

Mendia

Mendi ibilbideen sarea kolokan

Nafarroako Gobernuak Mendi Ibilbideen Sareko mantenu lanendako ez du diru-laguntzarik eman eta Mendi Federazioa ibilbideei homologazioa kentzea aztertzen ari da. Gaur agerraldia egingen du Iñigo Alli kontseilariak

Aspalditik abisatzen ari da Nafarroako Mendi Federazioa, ezin duela gehiago bere gain hartu Nafarroako Ibilbideen Sareko mantenua. Izan ere, Nafarroako Gobernuak da ibilbide horien sustatzailea. Gobernuak diru-laguntza ematen zion mendi federazioari aipatu ibilbideen mantenu lana egin zezan, eta federazioko 180 boluntariok egiten zituzten mantenu lanak: mendi ibilbideetan seinaleztapena jarri, mendizaleak



GR-ak markatu eta mantentzeko lan handia egin dute ere Sakanako mendizaleek.

ez galtzeko ibilbidea markatu eta beste mantenu lanak.

Baina azkenaldian federazioak ez du Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzarik jaso. Nafarroan 4 Ibilbide Luze (GR delakoak) daude, 800 km osatzen dituztenak, eta Nafarroako Mendi Federazioaren esanetan "euren egoera delikatu da". 2014ko otsailean adierazi zuten "bi urte daramatzagu mantenu lanengatik diru-laguntza kobratu gabe. Gu gara ibilbideen mantenuaz arduratzen garenak, baina tarte honetan ere sortutako gas-

tuak gure gain hartu ditugu. Baina gastu hori ezin dugu gure gain gehiago hartu. Kirol zuzendariak esan zigun gaiari irtenbidea eman gozotela 3 egunetan eta ez dugu berririk. Ez dagoela dirurik esaten du. Soilik interesatzen zaienarako dago dirua" adierazi zuten orain dela ia urte bat, mendi federazioko arduradunek.

Homologazioa kendu?

Egoeraren aurrean, ibilbideei homologazioa kentzea dute mahai gainean. "2006an ibilbideei homo-

Alliren agerraldia Parlamentuan

Gaur, 10:00etan: Bildu-Nafarroak, Aralar-Nafarroa Baik, Izquierda-Ezkerrak eta Leza parlamentarietiek eskatuta, Iñigo Alli Gizarte Politikarako kontseilariak agerraldia egingen du gaur, ostiralean, goizeko 10:00etan Parlamentuan hasiko den Gizarte Politikarako batzordean. Iñigo Allik Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioarekin dauden harremanak nola dauden azaldu beharko du, zein den egoera, Nafarroako Ibilbide Luzeen Sareei homologazioa kentzea ekiditeko.

logazioa kendu genien, eta akaso berdin jokatu beharko dugu, ibilbideen kartelen gainean homologatu gabe daudela jarri. Ikusiko dugu" adierazi dute federaziotik.

Izan ere, mendizaleendako ezinbestekoa da ibilbideak markatuta eta egoera onean egotea, mendizaleak ez galtzeko. Bestalde, ibilbideak ere turismoa erakartzen dute.

Kiroldegia

San Silbestreak arrakastatsuak izan ziren eta mendizaleek urteari agurra eta ongi etorria mendian eman zioten

Urteko azken egunean antolatutako kirol ekitaldiak arrakastatsuak izan ziren oso. Hasteko, goizean mendizaleek mendi puntetara jo zuten urtea despeditzera. Iraxok eta Pikuxarrek antolatuta, Ergako Trinitatera jo zuten irurtzundarrek. Lakuntzako Zabalartekoak, aldiz, Lakuntzaskoarrin bildu ziren. Bestalde, Altsasuko Mendi-goizaleak eta Olaztiko Sutegi klubak deituta, Aizkorrira jo zuten makina bat sakandarrek, eta baita Beriainera eta Aralarra ere.

Arratsaldean txirrindularien txanda izan zen. Sociedad Deportiva Alsasuko antolatutako 32. San Silvestre-Urbasako Igoera probarako 65 txirrindulari eman zuten izena, baina antolatzaileek adierazi digutenez 100 txirrindulari inguru abiatu ziren Altsasutik, Urbasako portua igotzeko. Ion Zeberio eta Patxi Cia izan ziren azkarrenak. Goian salda beroa hartu ondoren, jaisterakoan kamiseta jaso zuten oroigarri SDA klubaren egoitzan.

Bukatzeko, San Silbestre lasterketen txanda izan zen. Dantzaleku Sakanak klubak eta Sakana Triatloi Taldeak Altsasun antolatutako 36. San Silbestre-Mario Memorialak errekor guztiak apurtu zituen. 516 korrikalari aritu ziren proba nagusian (4,7 km) eta 151 kategoria txikietan, 667 korrikalari guztira. Hiriberriko Ibai Huarte (14:46) izan zen txapelduna, Sergio Garcia de Eulateren (14:50) eta Javi Morenoren (14:54) aurretik. Emakumez-

Urte aldaketak utzi zuena



Olaztiko San Silbestrean 100 korrikalari inguruk hartu zuten parte.



Urbasako portua igo zuten txirrindulariek urteko azken egunean. SDA



Sakanako mendizaleak Beriainen, errege egunean. ARACELI MARKOTEGI

koetan Izaskun Beunza (17:19), Maiteregaña (17:51) eta Erkuden San Martin (19:02) gailendu ziren. Txapelketako sailkapena ikusgai dago www.dantzalekusakana.com web orrian.

Olaztin, eta Sutegi klubak antolatuta, San Silbestrearen 13. edizioa jokatu zen, giro bikainean. Guztira 100 korrikalari inguruk parte hartu zuten. 7 urte arteko mailan Unai Castro eta Mireia Santama-



Altsasuko San Silbestreak errekorak apurtu zituen: 667 korrikalari, guztira.



Irurtzungo latxokoak Ergan despeditu zuten urtea.

ria nagusitu ziren; 8-11 urte artekoan Oier Saracibar eta Anne Lapuente; 12-15 urte artekoan Lander Bados eta Maitane Vilariño; eta, azkenik, nagusien proban Raul Audikana eta Saray Garasa.

Urteko lehen igandean, Bargainera jo zuten mendizale altsasuarrek. Eta Sakanako Mendizaleak taldeak deituta, urtero moduan Errege Egunean Beriaingo ermita izan zen mendizaleen topaleku.

Atletismoa

Sakandarrak
Araitz BetelunJavier Nagorek eta Iزارo Rubiok
irabazi zuten proba nagusia

Sakandarrak X. Araitz Beteluko krosetan:

1.	Javier Nagore	25:06
28.	Mikel Berdud	29:03
31.	Juan Luis Maiza	29:10
36.	Jose Javier Maiza	29:20
78.	Santi Agirre	32:14
88.	Carlos Manero	33:34
94.	Itzaki Morillas	34:02
109.	Amaia Etxeberria	36:00
115.	Maite Zabaleta	36:54
131.	Migel Chamorro	38:42
143.	Joxe Mari Mercero	39:48
145.	Josi Reparaz	40:34
159.	Belen Mendoza	43:24

Igandean jokatu zen X. Araitz-Beteluko Krosa (7,7 km), Betelun. Guztira 270 korrikalarik erantzun zioten deialdiari. Proba nagusia Javier Nagore (25:06) eta Iزارo Rubio (29:57) izan ziren azkarrenak. 12 sakandarrak ziren lehian eta azkarrena Mikel Berdud izan zen, helmugan 28.a (29:03).

KADETEETAN FERMIN AZKARGORTA TXAPELDUN

Kadeteetan 13 korrikalarik hartu zuten parte eta azkarrena Fermin Azkargorta iturmendiarrak izan zen (11:35). Oihan Perez altsasuarra 3.a sailkatu zen (12:58), Xabier Martirena altsasuarra 6.a (13:52) eta Leire Maiza etxarriarra 7.a (14:04).

GARCIA DE EULATE BIGARRENA AZKOOIENEN

Sergio Garcia de Eulate bigarren sailkatu zen Ilbeltzaren 4an jokatuako 15. Azkoienengo Erregeetako Krosetan, Bader Ihdi irabazlearen atzetik.

Areto futbola

Derbia Magnarendako

IRURTZUNGO TALDEAK 5-2 IRABAZI ZION TUTERAKO ASPIL-VIDALI ETA 6. POSTURA IGO DA

Ostiralean areto futboleko lehen mailan dabilen bi taldeen arteko derbia hartu zuen Anaitasunak, Magna Nafarroa Xota eta Aspil-Vidalen artekoa. Zaleek girotuta, 5-2 gailendu ziren Imanol Arregiren mutilak.

Lehen zatiko protagonista nagusia Aspil-Vidal izan zen. Palmasek eta Andresitok 0-2 aurreratu zuten Tuterako taldea. Baina Roberto Martilek Magnaren lehen gola sartzea lortu zuen atsedena baino lehen, distantziak murriztuz.

Magnak bigarren zatian lortu zuen egoerari buelta ematea. Pablo Ibarrek bina berdintzea lortu zuen. Ondoren, Dani Saldisek baselinaz sartutako gol bati esker 3-2 aurreratu zuen Magna. Kontraeraso baten ondoren iritsi zen Jesulitoren gola, Magnaren laugarrena. Eta Roberto Martilek Irurtzongo taldearen bosgarren gola sartu zuen.

Kontentu

Imanol Arregi entrenatzailea kontentua zegoen. "Lehen zatian Aspil-Vidalekoek dominatu dute gehiago, eta bigarrenengo hobeak izan gara" azaldu zuen. Atsedena baino lehen gola sartzea "klabea" izan zela azpimarratu zuen, "bigarren zatia beste modu batean abiatzea ahalbideratu digulako".

Zaleek emandako babesarekin eta sortutako giroarekin oso esker-



Magnak seigarren postua lapurtu zion Aspil-Vidal Tuterako taldeari.

tuta azaldu ziren irurtzundarrak. "Etxean irabaztea oinarritzkoa da, eta are gehiago Aspil bezalako arerio zuzenarekin" zioen Roberto Martilek jokalaririk irurtzundarrak.

Hurrengo arerioa, Jumilla

Lehen mailako liderra Bartzelona da (43 puntu). Magna 6. postura igo da (30 puntu), hain zuzen ere Aspil-Vidal postua lapurtuz. Tuterakoak 7. ak dira, puntu berberekin. Larunbatean 14. postuan dagoen Montesinos Jumillaren kontra jokatu du Magnak, Murtzian.

2014ko balorazio ona

Magna Nafarroa Xotako presidentek Tatono Arregik 2014 urtea "bikaina" izan dela adierazi du. "Orain-

dik denboraldi honetako aurrekontua estaltzeko 40.000 euro lortzea falta zaigu eta lanean jarraitu behar dugu, baina gauden garaiak kontuan hartuta, kontentua egoteko moduan gaude" adierazi du irurtzundarrak.

Xota Fundazioak trailer batesnez bete nahi du, Nafarroako Elikagai Bankuari emateko. "Oraindik donazioak falta dira eta jendea bere aletoa emateko deitzen diogu" dio Arregik. Horretarako, ondoko kontu korrantean egin daitezkeen karpenera: 0075 4650 9807 0014 7840.

Murga Magnara

Cadizeko Jesus Murga atzelariak Magnan jokatu du denboraldi honetan, Inter Movistarrek utzita.

Txirrindularitza



Taldea onena izaten jarraitu nahi du

Ostiralean aurkeztu zuten 2015eko Movistar taldea, Madrilen. Quintanarekin Tourra irabaztea, orduaren errekorra lortzea eta taldeko UCIko rankinga atzera ere irabaztea izango dira taldearen helburu nagusiak. Imanol Erbitik bere 10. denboraldia beteko du eta Jose Luis Arrieta uhartearekin zuzendari moduan jarraituko du.

Saskibaloia



Altsasu CBASK taldeen aurkezpena

Altsasuko CBASK Saskibaloi Kluba 100 saskibaloi jokalaririk dauzka, 9 talde dabilenak. Abenduaren

27an egin zuten aurkezpena. Juan Jose Marin Memorialeko CBASKeko 55-52 irabazi zion Alpendiri.

Areto futbola

Futsalsakana txapelketako 9. jardunaldia jokatu da

Uharteko Arakilen jokatu dira partidak, ostiralean eta larunbatean

Asteburuan Futsalsakana Txapelketako 9. jardunaldia jokatu da Uharte Arakilen pilotalekuan. Aurreko asteburuan 8. jardunaldiak jokatu ziren, eta, tartean, Auzomotojorik talde etxarriarri 6-8 irabazi zion Bunker talde altsasuarri. Partida estu eta zurraragarrirak. Etxarriarrak 5-4 aurreratu ziren, baina minutu gutxitan Bunkerrek euren asmoak zapuztu zituen eta 6-8 gailendu zen.

9. jardunaldia

Uharteko Arakilen
Ostiralean

20:00etan: Arbizu K.T. - Hijos de perla

21:00etan: Iturmendi - Back Street Boys

Larunbatean

15:00etan: Arbizu harrobia - Auzomotojorik

16:00etan: Bunker - Racing San Migel

Arbizu Irurtzongo 12+12 areto futbol txapelketako txapeladuna



Abenduaren 27an eta 28an jokatu zen La Guantaleko antolatutako Irurtzongo 12+12 orduko areto futbol txapelketako finalerako Arbizu K.T. eta Gunea Taberna sailkatu ziren. 350 zaleren aurrean jokatuako final lehian, Arbizu izan zen txapeladuna (3-1).

Arbizu da Futsalsakana Txapelketako lider (16 puntu), Bunker puntu eskas batera duela. Racing San Migel da 3.a (11 puntu), Arbizu harrobia 4.a (9 p.), Hijos de perla 5.a (7 p.), Auzomotojorik eta Back Street Boys hurrenak (6 p.) eta Iturmendi azkena (0 p.).

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

16. JARDUNALDIA

AMAIA 2 - LAGUN ARTEA 2

Partida lehian, Unanuak Lagun aurretatu zuen lehen minutuan, baina atsedena baino lehen berdindu zuen Amaiak. Bigarren zatian berbera gertatu zen. 50. minutuan Unai Lagunen 2. gola sartu zuen, baina, tamalez, 80. minutuan Amaiak berdintzea lortu zuen.

Sailkapena >>

1. Mendi	38 p
13. Lagun Artea	16 p

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA - AIBARES

(Larunbatean, 16:00etan, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

16. JARDUNALDIA

ETXARRI ARANATZ 5 - ARDOI B 1

ITAROA HUARTE 1 - ALTSASU 2

Ettxarrik lider sendoa dela erakutsi zuen atzera ere, 5-1 hartu baitzuen menpean Ardoi. Zizurkoak aurreratu ziren 20. minutuan, baina kontrako golak biziberritu egin zuen Etxarri eta markagailuari buelta eman zioten. Mikelek bi gol sartu zituen atsedena baino lehen eta beste bat bigarren zatian, hat tricka lortuz. Partida bukaeran Ruedak eta Luisek sartutako golei esker 5-1 irabazi zuen liderrak eta 9 puntu ateratzen dizkio Arrotxapea bigarrenari. Bestalde, Altsasu 1-2 gailendu zen Uharte Iruñean. Altsasuren aldeko penalti bat seinaleztatu zuen arbitroak eta hortik aurrera dominatzen pasatu zen. Atsedendira 0-2 aurreratu zen Altsasu, eta nahiz eta Uharte gol bat sartu, 3 puntuak Altsasura etorri ziren.

Sailkapena >>

1. Etxarri Aranatz	40 p
6. Altsasu	27 p

Asteburuko jardunaldia

LEZKAIRU - ETXARRI ARANATZ

(Larunbatean, 18:15ean, Lezkairuko Sotoan)

ALTSASU - UNIVERSIDAD DE NAVARRA

(Larunbatean, 16:00etan, Altsasan)

ELOMENDIKO TXAPELKETA. 2. fasea

5. JARDUNALDIA

EGIARRETA 3 - UNZITI 1 (A multzoa)

ZALDUA 2 - ELOMENDI 2 (B multzoa)

A multzoko sailkapena >>

1. Egiarreta	19 p
--------------	------

B multzoko sailkapena >>

1. Maldarte	14 p
5. Zaldua	11 p

Asteburuko jardunaldia

ORORBIA - EGIARRETA

MODERNILLO - ZALDUA

Futbola

Kimuen Futbol 8
Topaketak aurrera

Mank-ek antolatutako Sakanako Kimuen Futbol 8 Topaketako lehen itzuliko 9. jardunaldia jokatu da igandean Altsasuko Dantzalekun.

9. jardunaldia

Igandean, Altsasuko Dantzalekun

10:30ean: Txartel - Urdiain

11:30ean: Kaixo - Dantzaleku

11:30ean: Arbizu - Tipi Tapa

12:30ean: Sayas - Sutegi

Mediolanum - Lagun Artea (aurreko asteburuko jokatu zen)

URREZKO DIAPASOIA IJURRARENAKO: Igor Ijerra Fernandez etxarriarrak Espainiako Abesbatzen Konfederazioak (COACE) emandako saria jaso zuen aben-

duaren 30ean. Sariarekin COACEk Ijurraren musika ibilbidea eta abesbatzen arloan egindako ekarpena aitortu nahi izan zuen. Ijurrak bildutakoei ikastaroa eman zien.

kultura >>

Zinema ikuslearen eguna lortian



Ostegunero, 19:00etan, gaurkotasuneko filma 3 eurotan ikusteko aukera izanen da. Sarrerek, gainera, bi zozketarako balioko dute

Iortia kultur gunea Altsasuko bizitza sozial eta kulturalaren dinamizatzaileetako bat izateko lanean jarraitzen du udalak. Eskaintza zabaltzeko ostegunak zinema ikuslearen eguna izendatu ditu. Gaurkotasuneko filmak 3 eurotan ikusteko aukera izanen da egun horretan, 19:00etatik aurrera.

Garazi Urrestarazu Zubizarreta alkateak azaldu zigunez, joan den urtean Iortia areto nagusian proiektore digital berria jartzea erabaki zuen udalak. Zinema banatzaile gehienak digitaletan lan egiten dutelako, besteak beste. Joan den urteko lastailaren 10ean hasi zen lanean proiektore berria. Urrestarazuk azaldu duenez, "nabaritzen ari gara. Estreinaldiak azkarrago iristen zaizkigu eta merkeago ikusteko aukera dugu Altsasun". Alkateak gaineratu duenez, "inbertsioaren harira udalean egindako hausnarketetako bat izan zen zinema zerbitzuaren eskaintza zabaltzea behar zela".

Elkarlanaren fruitua

Altsasuko Udalak zinema eskaintza elkarlanean zabaltzea erabaki zuen eta ikuslearen egunarekin prezioak jaitea. "Merkataritzak

dinamizazioa behar du eta jendeak bertan kontsumitzea. Ostegun jarri dugu, dendak zabalik dauden garaian". Azaldu digu alkateak, gaineratuz, "ostegunetan tabernetan pintxo potea dugu". Horregatik jo dute Altsasuko Dendarien Elkartearen (ADE) eta Xurrut, Alde Zaharreko tabernen elkartearengana.

Aldi berean, Urrestarazuk azaldu du **Bierrik fundazioak Guaixe Komunikazioa** zerbitzuaren bitartez iragartzeko euskarriak sortu dituela eta bere hedabideen bitartez, **Guaixe astekaria eta Beleixe Irratia (FM 107,3)**, zabalkundearen bere ekarpena egiten duela. "Lau eragileak elkartu gara eta bakoitzak bere aletxo jarriko diogu eskaintza berri honi" azaldu du alkateak.

Sariak

Elkarlanaren eta inplikazioaren ondorio da sariak. ADEk astero zinemara etortzen diren guztien artean 20 euroko balea zozketatuko du. Xurruteko tabernek bi astean behin zinemarako sarrerek zozketatuko dituzte eta hileko beste bi astetan aforiak zozketatuko dituzte. Zozketetan sartzeko zinema sarrerek erakutsi beharko dira.

Oroimenaren irudiak errealitate bihurtuz

Altsasuko Iortia kultur gunean Venancio Amillanoren erakusketa dago. Astelehenetik ostiralera, 18.30etik 21:00etara eta domeketan, 19:00etatik 21:00etara dago ikusgai

Larraitx Amadoz Lazkano

Venancio Amillano altsasuarrak gogoan zituen oroimenak guregana ekarri ditu. Duela hamarkada batzuk ikus zitezkeen irudiak memorian gordeta dauka eta hori probestuz Altsasuko tailerrean garai bateko arropa eta objektu ezberdinak landu ditu bere eskuekin. Harria eta egurra erabiltzen ditu *Oroitzapenak* izeneko erakusketako figurak lantzeko. Ostiralean mustu zuten, eta hilaren 25era arte izanen da beta bertara gerturatzen.

Amillano artistak iraganeko bizitza gogoratu nahi izan du. Horretarako, egurra eta harria baliatu ditu; haritza, altzifrea eta ezkia erabili ditu egurraren kasuan eta harrizko eskulanetan marmola. Erakusketak hiru gune nagusi dauka, batetik, lau atorra ikus daitezke, laukidunak dira, eta egurrez eta harriz eginak daude. Beste alde batetik, soka batean zintilik garai bateko arropa garbitzen zeneko momentua irudikatu nahi izan du. Soka horretan zintilik, praka batzuk, hanka luze-ko galtzontziloak, galtzerdiak eta sukaldean erabiltzen ziren trapaak landu ditu. Haiek denak egurrez egindakoak dira.

Azkeneko gunea esekitoki baten inguruan ageri zaigu. Bertan, egunerokotasunean erabiltzen ziren hainbat arropa ikus daitezke, txano bat, aterki bat, jaka bat, gabardina bat eta bufanda bat azkenik. Erakusketako artelan guztiek iragana dute komunean, aspaldi egiten ziren jarduerak gogora ekarri nahi izan ditu Amillano altsasuarrak. "Gaur egun garbigailuak, lehorgailuak dauz-



kagu eta arropa garbitzearen jarduera hori guztiz aldatu egin da".

Iortia kultur guneako eremu zabalean oroitzapenak erakusketaz aparte, Amillanoren artelan gehiago ikusteko aukera dago. Lehenik marmolezko hiru emakumeren bustoak daude, hiruak forma ezberdinetan landuak. Haien ondoren, irudi ezberdinak ikus daitezke, batetik ninfa baten irudia egurrez

egina, On Kixote eta Santxo Panza, Altsasuko inauterietako akerra eta errementaria. Gehienak egurrez egindakoak dira eta oso teknika landua dute. Artelan haietatik aparte, pintura lantzen du ere Venancio Amillanok. Olio-pintura teknikaren zalea da, eta erakusketan etxean egindako batzuk jarri nahi izan ditu. Paisaiak ditu gustuko batez ere artista altsasuarrak.

Hurrengo erakusketa prestatzen



Oroimen eta iraganarekin jarraituz, asko urrundu gabe, beste erakusketa baterako egiten ari den eskulanen presentzia antzeman daiteke. Oraingoan, industrializazio eta immigrazio usaina sumatzen da artelanetan. Egurrezko kutxa batek industrializazio garaiko etorkinen irudia ekarri digu burura, gainean egurrezko txamarra dago eta diru eza eta premia agerian uzten dituen aterkia. Horiexek dira momentuz prestatu dituen artelanak, baina lanean jarraitzeko indarrez ikusten zaio Venancio Amillano altsasuarrari.

TxikiTxo
haurren arropa eta tentzeria

2x1

948 46 73 08
Ferialeku 2 · ALTSASU

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotegia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279 · hijosdegoikoetxea@yahoo.es

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

Dagoeneko Haize Berriak bandaren eta Etxarri Aranazko Abesbatzaren mezenas izan gaitezke

Bi kultur erakundeek MECNA interes sozialeko izendapena jaso dute. Herritarrek eta enpresek haiei egindako diru-ekarpenak zerga-pizgarriak izanen dituzte

Urte hasieratik indarrean da Kultura Mezenasgoaren Foru Legea, gizarte zibilak kultur sektorearen garapenean parte hartzea sustatu nahi duena. Jasotako 124 eskaeren artean, abenduaren 18an egindako bileran, Nafarroako Kultura Kontseiluak kulturako 90 proiektu eta ekintzei MECNA interes sozialeko izendapena ematea erabaki zuen. Horien artean daude Haize Berriak banda eta Etxarri Aranazko Abesbatza.

Helbide fiskala Nafarroan duten enpresek eta partikularrek Nafarroako kultur garapena babesteko hiru bide dituzte zabalik. Lehena, *dohaintza* da. Hau da, kultur erakundeek diru, ondasun edo eskubideen ekarpena edo zerbitzuak doan ematea. Bigarrena *erabiltzeko maileguak* dira. Haien bidez, kultur intereseko ondasunak doan eta aldi baterako uzten zaizkie kultur erakundeek edo artistek (proiektuak, kalitatezko artelanak eta abar egiteko lokalak). Azken bidea, *lankidetzahitzarmenak* dira. Kolaboratzaileen (ekarpen ekonomikoak egiten dituztenak) eta onuradunen artean sinatuta eta, haiek, laguntza ekonomikoaren truke, kolaboratzailearen partaidetza zabaltzeko konpromisoa hartzen dute.

Zerga-pizgarriak

Mecna zigilua duten proiektu eta ekintzei laguntzeagatik emanen diren zerga-pizgarriak ezberdinak izanen dira norbanakoen eta enpresen kasuan. Partikularrek PFEZ zergaren kuotatik zergaldi

Haize Berriak bandaren film laburra



Joseba Salegik zuzenduta, ilbeltzaren 2aren eta Saren artean filmatu zen

Haize Berriak bandak udaberriaren ibarreko musikari bat omentzeko asmoa du. Emanaldi horren osagarri izanen den film laburra hilaren hasieran filmatu du, Joseba Salegi zuzendari altsasuarraren esanetara. Iortia kultur etxea, haren aurreko aldea eta Uharte Arakil izan dira film laburrerako lokalizazioak. Bandako kideekin batera Altsasun berezko diren makina bat elementu jasotzen dira Zatoz, agur film laburrean.

bakoitzean dohaintzan emandako lehen 150 euroren % 80 kentzeko eskubidea izanen dute; gainerako zenbatekoek, berriz, % 40ko kenkarirako eskubidea izanen dute. (Adibidez, 200 euroko ekarpenetik, 140 euro kenduko dira).

Eta enpresek, kenkaria Sozietate Zergaren zerga-oinarriko dohaintzen zenbatekoetan – oro har dohaintzak ez dira ken daitezkeen gastua – eta kuota likidoaren % 30eko kenkaria zergaldi bakoitzean emandako lehen 300 eurotan, eta % 20koa ondorengo zenbate-

koetan. (Adibidez, % 20ko kargaren tasa eraginkorra duen enpresa batek, 3.000 euroko dohaintza baterako, Sozietate Zergaren aitopenean 1.230 euro kentzeko eskubidea izanen du).

Kenkariak eta murrizketak burutu ahal izateko, kultur mezenasgoaren onuradun diren pertsonen edo erakundeek ekarpenak egiaztatu eta Nafarroako Zerga Ogasunean jakinarazi beharko dituzte. Gainera, kenkariak eta murrizketak bateraezintasuneko araubide baten mende daude.

Beste biz

Sakanarekin lotura duten beste bi Mecna izendapen ere badaude. Alde batetik, Nafarroa Bizirik fundazioak Etxarri Aranatzin egin nahi duen Enneco, haritzaren memoria egitasmoa babestu dezakete mezenek. Bestalde, Nafarroako Bertsozale Elkarteak herrialdean bertsozaren transmisioa eta sustapena egiteko laguntza eman daiteke Mezenasgo Legearen bidez.

Haur bildumak sortzeko Etxepare saria

Larraitz Amadoz Lazkano

Sari horretan aurkeztu nahi duten partaideek hurrei zuzendurikolan ilustratuak aurkeztu behar dituzte, irudieta testu laburren



bidez, eta hari narratiboa duen istorio bat kontatu behar dute. Lehiaketa irabazten duen pertsonak 5.000 euroko saria izanen du. Testuaren ezaugarriak dagokionez, euskaraz idatziak izan behar dira eta argitaratu gabeak, aldi berean.

Lehiaketara aurkeztu ahal izateko baldintza jakin batzuk bete behar dira, idazlea bakarka aurkeztu daiteke ala ilustratzailearekin batera taldekako lanean eta 15 orrialde bikoitz idatzi behar dira gutxienez. Sariaren antolatzaileen artean Sakanako Mankomunitatea dago, beraz, bertan xehetasun guztiak aurki daitezke. Maiatzaren 22an itxiko da aurkezteko epea, eta dokumentu guztiak Leitzako Udaleko euskara zerbitzura bidali behar dira.

The Beatles doinuak Lakuntzan

Gaur, 23:30ean, Lakuntzako Sorgiñak tabernan

The Crocets taldeak Liverpoolen doinuak eskainiko ditu gaur gauean Lakuntzan. Asier Delgado (gitarra), Iker Nausia (baxua) eta Alvaro Manrike (bateria) donostiarrek osatzen dute taldea. Hirukoak The Beatlesen *Help*, *She loves you*, *A hard day's night* eta beste hainbat doinu eskainiko dituzte.

bazterretik

Jose Luis Asensio

Kondairak I: Mitologia

Japoniako kulturaren ohikoak dira mamuak, izpirituak eta jainkoak. Eta honen adierazgarri bezala ikus ditzakegu beldurrezko gaiak lantzen dituzten liburu, komiki eta pelikula mordoa.

Japonia ezagutzen dudana herrialde aberatsenetariko da mitologia kontutan. "Non Non Ba" komikian adibidez, ehunaka izpiritu eta mamu deskribatzen dira, ahoz aho zabaldu diren ipuinen ondorioz. Hiru ataletan banaturiko idatzia luzatu nahi dizuet, lehenengoa, irakurtzen ari zaren hau, mitologia klasikoaren inguruan, hau da, Japoniako izaki

mitologiko gutxi batzuen bilduma.

Kappa

Laku eta erreketan bizi den deabrua da Kappa, baina Sintoismoaren barruan, uraren jainko bat bezala onartua dago. Haur heldu baten altuerako izakia da, pertsona baten antza duelarik baina narrasti batzuen ezaugarriekin, ala nola dortokaren mokoa eta oskola, ezkatat babesturiko azala berdea eta uretan iaioa.

Esaten omenenez, Kappek haurrak uretan ito egiten dituzte jan aurretik, nahiz eta beste esamesa batzuek itotako haurrak Kappa ere bihurtzen direla dioten. Dena den, argi dagoena zera da, haurrak uretatik urrun mantentzeko gurasoek

erabilitako kondaira dela.

Akaname



Japonian aspaldidanik eman zaio garrantzi ikaragarria eguneroko bainu bat hartzei eta bainugela oso garbi mantentzen dute beti. Zergatik? Hona hemen arrazoia. Akaname, bainugela zikina egotekotan agertzen den deabrua da, bainuontzian agertutako zikinkeriak miatzatzeko. Azala gorria eta mingain luzea duen izakia da, zikinkeria edozein zulo ezkututatik ere miatzka-


tzeko. Berak ez du inolako minik ematen pertsona arruntei, bainabeste izaki arriskutsuagoak erakarri ditzake denbora luzez zure etxean geratzeko.

Kodama

Nik, Miyazakiren "Mononoke printzesa" pelikulan ezagutu nituen izaki zoragarri hauek. Basoetako zaindariak dira, eta natura babestea da beraien helburua. Txikitxoak dira, pertsonen itxurakoak naiz eta batzuetan erdi garden ager daitezke begi aurrean desagertuz. Hala ere, oso indartsuak dira eta normalean bakezaleak diren arren, norbaitek natura suntsitzearen ondorioz asaldatzen badira, mendeku bila joan daitezke bere bila.

Shinigami

Heriotzaren jainkoak dira berez, nahizeta historian zehar ezaugarri ezberdinak izan dituzten. Normalean pertsona batek bere buruaz beste egitera animatu egiten dute, beraien ondoan dagoen pertsonari hiltzeko gogoak sortzen zaizkiolarik. Death Note manga famatua adibidez, liburuxka beltza bat dute gainean, non norbaiten izena bertan idatzi ondoren, pertsona hori hiltzeko ahalmena duten.



Altsasuk hartuko du aurreneko Nafarroako Trikiti Jaialdia

Bihar, 17:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean

Sarrera guztiak salduta, trikitixa protagonista izanen da bihar Altsasan. Betiko estiloa eta molde berriak izanen dira entzungai. Sorpresa bat baino gehiago iragarri digute Nafarroako Trikiti Elkartetik. Elkarteko kide Patxi Agirre arbizuarrak esan digunez, “Nafarroan Trikitixa Eguna, Trikitixa txapelketa... egin izan dira aurretik, baina halakorik ez da egin Nafarroan”.

Beste herrialdeetako trikitiarendako erreferentzia egunak eredu hartuta antolatu dute biharko jaialdia. “Nafarroan ez zen halakorik egin” nabarmendu Agirrek. Urtero errepikatzeke asmoa ere azaldu digu: “Neretako hobe Sakanan izaten bada, poz-pezik. Baztannen, Iruñerrian, Lizarraldean ere halako jaialdi bat nahi dute. Are eta hobeto lortzen badugu”.

Egitaraua

Jaialdian joko duten ordenaren arabera eman digu Agirrek parte-hartzaileen berri. Guztiak ere hiru pieza joko dituzte. **Tapia eta Leturia.** “Gauza berriak egin izan dituzte eta halakoak azalduko dituzte ziurrenik”. **Alaitz Telletxea eta Arkaitz Miner.** “Garai batean aparteko sona lortu zuten Alaitzek eta Mainerrek. Baina dirudienez, Mainerrek ezin du etorri eta Arkaitz ariko da”.

Xabier Etxaniz eta Ainara Saizar. “Nire ustez, eta askorendako ere, Etxaniz fenomeno bat da. Pilak sekula bukatzen ez zaizkion makina bat da. Saizar pandero jolea eta ahotsa. Bikotea askotan izan da Euskal Herriko txapelduna. Etxaniz kanpoan ikasten ari da eta biharko jaialdirako propio etorriko da. Esker-



tzekoa”. **Izer eta Ines Osinaga.** “Trikitixarekin Gose taldean beselako musika egiten du Osinagak. Biak trikitilariak dira eta zer aurkeztuko diguten ez dakigu. Zeinek joko duen trikitia, batek edo biak, zeinek kantatuko duen... Eszenatokian ikusiko da”.

Elizagoien Ahizpak. “Oso-osonak dira eta txapelketa asko irabazi dituzte, ez kasualitatez, maila oso ona dutelako”. **Eneko Dorronso eta Aiora Urdangarin** “Zopilotes Txirriaus taldeko trikitilariak da Eneko eta Aiora Laket taldeko gitarra, pandero eta abeslaria. Hainbat txapelketetan parte hartu eta irabazi ditu beste trikitilari-

ri batekin”.

Ixteko, **Gozategi.** “Sakanara ekarri nahi genuen, 16 urterekin Asier izan zelako Arbizura ekarri nuen aurreneko trikiti irakaslea. Sakanan aritzen diren buruen irakaslea izan zen eta maila handia du. Anai arreba ariko dira, eta

Iñigo Goikoetxea batuko zaie piezaren batean”. **Anjel Alkainek** jaialdiaren aurkezpenari “gatza eta piperra” jarriko dio.

Elkartea

Duela 14 bat urte sortu zen Nafarroako Trikitixa Elkarte. Instrumentua herrialdean eza-gutzera emateko antolatu izan dituzte irteerak, Nafarroako Trikitixa Txapelketak edota Nafarroako Trikitixa Eguna ere. Bere egitekoan aurrera egiteko pizgarri berria da biharko jaialdia. Hura antolatzen egon diren laguntzaile guztiendako esker oneko hitzak izan ditu Agirrek, besteak beste, Elizagoien ahizpak, Altsasun eta Olaztin irakasle ari den Lohitzune Berastegi eta haren lagunak... Agirrek esan duenez, betidanik, “Sakanan jo ditugun ate guztiak esku zabalik zabaldu dizkigute”.

Zaletasunaz

Sakanan duela 26-27 urte hasi ziren trikiti eskolak ematen. Arbizon izan zen, Asier Gozategi irakaslearekin. Agirrek gogoa duen moduan, “orduak moduko bat izan zen eta kopurua mantendu bakarrik, gehitu egiten da”. Trikiti ikastaroek segitzen dute, baina musika eskoletarako jauzia egin nahian dabilta. “Haietan trikitixa ikastea posible da, baina solfeo bidez ikasiz. Hura ez duten askok ezin dute ikasi. Beste metodo batzuk daude, haiekin erraz ikasten da. Hor gabiltza”.

Afaria

“Badakigu noiz sartuko garen, baina ez noiz aterako garen”, esan digu Agirrek. 90 bat pertsonen eman dute izena afaltzeko. Dagoeneko txartelak saldu dira.

Magia eta rock abentura

Domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean

Txanogorritxo rock antzezlan halaxe definitu du Tdiferencia antzerki taldeak. Iortia eszenatokian taularatuko dutena ez da Txanogorritxoren betiko ipuina izanen. Etzikoa Txanogorritxo rockzalea da, barre egin eta zalapartarako gogo handia duena eta ipuinari buelta emanen diona. Eva Azpilikueta aktore altsasuarrarekin batera, Monika Torre eta Ainhoa Ruiz izanen dira gainontzeko pertsonaiak jokatuko dituztenak. Hirurak Migel

Molinaren zuzendaritzapean ariko dira.

Jirabiran

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak, Nafarroako Antzoki Sarearekin elkarlanean, abian jarri du Jirabiran. Bi helburu ditu programak: Nafarroako konpainia profesionalen kontratazioa laguntzen bidez bul-tzatzea, baita Nafarroako Antzoki Sareak espazioetan duen programazioa areagotzeko ere.

Sakanan Jirabiran programako hiru emanaldirekin gozatzeko aukera izanen da. Domekako



Altsasukoaz aparte, hilaren 24an, larunbatean, Pedro III.a ilusionistak *Cruzando el espejo* ikuskizuna ekarriko du Olatzagutira. Eguna bat geroago, Irurtzungo kultur etxean, Producciones Maestras taldeak *Tres arboles de piedra* antzezlan taularatuko du.

Hondakinei buruzko antzerki-zirko ikuskizuna

Larunbatean, 17:30ean, Etxarri Aranazko kultur etxean

Horixe da Zirika Zirkus taldearen *Konpost Eroak* obra. Eszenatokian hiru pertsonaia azalduko dira: Kon Fuso (Luis Lainez) frantziarra, zaborra bereizten dakien eta ikasteko ilusio izugarria duena; Plasti andereño marijakintsua (Ainhoa Juaniz), edukiontzi batean bizi eta beti erakusteko prest dagoena eta Karton jauna (Txetxu Collado), pertsonekin etsiturik, ezkor eta haserre dagoena. Bera ere edukiontzi batean bizi da. Eguna gaizki bereizitako zabor multzo baten artean hasiko dute azken biek. Nora bota zalantza sortzen dieten hondakinak agertuko zaizkie.



Nonerabili

SAKANA OPTIKA

ALTSASU

%15eko deskontua graduatutako betaurreko osoetan (montura+lenteak). %10eko deskontua beste edozein artikulutan eta ikusmenaren errebisioa doan.

XALOK ESTETIKA, KIROL ETA NUTRIZIO ZENTROA

ETXARRI ARANATZ

%5eko deskontua, bonu, gimnasio eta jardueretan izan ezik.

NUEVA IMAGEN

ALTSASU

%10eko deskontua

ARRUAZUKO OSTATUA

ARRUAZU

Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

LOGURE

ALTSASU

%20ko deskontua (eskaintza berezietan izan ezik).

ML MODA

ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan, 10€tako deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

NEREA ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

Garbitu, moztu eta apaindu 26 €.

MARTXUETA

IRURTZUN

%5eko deskontua irakurketako liburuetan.

MENDILORE

BAKAIKU

30 €ko erosketarengatik, landarea doan, %5eko deskontua lorontzietan.

LEKU ONA OSTATUA

ALTSASU

Eguneko menuan, kafea doan. Bestelako menuetan, %10eko deskontua.

www.guaixe.net-en zerrrenda osoa ikusgai



G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 94%	euria: 80%	euria: 78%	euria: 98%	euria: 90%	euria: 87%	euria: 93%
Min: 3 Max: 6	Min: -1 Max: 6	Min: 1 Max: 5	Min: 1 Max: 5	Min: 2 Max: 5	Min: 1 Max: 5	Min: 0 Max: 4

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	17	-3.3	4
Etxarri A.	18.3	-3.3	4
Altsasu	18	-2.5	3.9
Aralar	13	0.5	6.1
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
20	27	4	12

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Abenduko

bazkide sarituak

- 1.- **Kontxi Ezkurdia Intxaurrondo**
(Irurtzun)
- 2.- **Martin Nafarrate Ormaetxea**
(Bakaiku)
- 3.- **Josune Goikoetxea Bergera**
(Lakuntza)
- 4.- **Jone Flores Garzandia**
(Lakuntza)

ILBELTZEKO SARIAK:

1. Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta liburu lotea.	3. Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta liburu lotea.
2. Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta liburu lotea.	4. Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta liburu lotea.

>> 11

galdera

Kontxi Mendiluze

Nafarroako Parkinson elkarteko kidea

Testua: Larraitz Amadoz Lazkano



Ikastetxeendako matrikulazio kanpainak

irratik • iragarkiak • bannerrak • kartelak • eskuorrak

diseinu & inprenta zerbitzua

948 564 275 argi@guaixe.net

Argitalpen eta diseinu lanetan %5eko deskontua Blerrik Fundazioako bazkideei

1. Zergatik zara Nafarroako Parkinson elkarteko kide?
Nire senarrak parkinson gaixotasuna duelako. Urte asko daramatzat elkarte honetan lanean eta harreman estua dugu. Altsasun elkartearen ordezkari bat sustatzea gustatuko litzaidake. Hala eta guztiz ere, Parkinson gaixoendako fisioterapia ekintza antolatzen dugu, astearte eta ostegunetan, 16:00etan. Elkarte indartzea eta jende gehiago gerturatzeko da gure asmoa, bazkide gehiago lortzea. Eskualde honetan, egia esan, parkinson gaitza jasaten duen nahikoa gaixo dago.

2. Nola dago antolatuta elkarte?
Probintzia bakoitzean elkarte bat ala gehiago daude, jendearen arabera. Federazioak elkarte guztiak biltzen ditu.

3. Elkarteak babes handia ematen al dizue?
Nik parkinson duen mundu guztiari elkarteragerturatzeko gomendatuko nioke. Bazkide egiteko aukera badute primeran ere, baina gutxienez gurekin harremanetan egotea da garrantzitsua. Gaixotasuna momentuz ez da sendatzen, baina laguntza handia ematen digu elkarteak. Medikuek beren lana egiten dute, eta gaixotasuna tratatzera mugatzen dira, elkarte horregatik gehigarri gisa oso garrantzitsua da. Musikoterapia, fisioterapia, logopedia, edota eskulanak bezalako jarduerak antolatzen dituzte. Gaixoen bizitza errazten duten ekintzak dira, alegia.

4. Sakanan parkinson gaixo asko daude?
Sakanan ehun bat gaixo egonen

dira, baina bazkideak bi gara soilik. Gaixoen datuen babesa sekretupean dago, beraz, jakin dezakeguna entzundakoaren arabera koka izan ohi da.

5. Zer eragiten du parkinsonak?
Parkinson gaitz neurodegeneratiboa da, aurrera egiten duena, eta ezgaitasuna sortzen duena. Ez da larria; orokorrean gaixoak ez dira parkinsonarekin hiltzen. Gaixotasun hau duen norbait beste pertsona osasuntsu bat bezain beste bizi daiteke, baina ezgaitasun egoera guztiz betetzen da. Gutxinaka eguneroko gauzak egiteko arazoak dituzte eta menpeko pertsonak bihurtzera iristen dira.

6. Batez ere egunerokotasunean izaten dituzte arazoak?
Hasiera batean gaixotasuna duten pertsonak nahiko ongi mantentzen dira baina denborarekin gauza okerrera doa. Geroz eta pertsona menpekoagoak bihurtzen dira eta ondoan gaudenok laguntza handia eskaintzen dugu.

7. Ostiral honetan zuhaitz landaketa bat egin behar duzue.
Federazioa, Ingurumena eta Altsasuko Udalaren artean antolatuta dugu. Kolaborazio bat egin nahi izan dugu eta jendearen egunerokotasunean sartu. Parkinsona duten pertsonen isolamenduarekin bukatu nahi dugu, gaixo egoetatik ez direlako gizartetik kanpogertu behar. Beste edonor bezala etxetik atera eta harremanetan egon behar dira eta hori da elkartetik sustatu nahi duguna. Landaketa ostiral honetan izanen da Dantzalekun, 11:00etan. Udalak ehun bat zuhaitz landatuko ditu

eta elkarteak berriz, hamabi.

8. Balore sinbolikoa eman nahi diozue zuhaitz landaketari?
Zuhaitz batek mantenua behar du, parkinsona duen gaixo batek ere behar duen bezala. Mantenua eta arreta behar ditu. Horregatik, balore sinboliko horrekin jokatu nahi izan dugu gure egoera deskribatzeko. Ingurumenari dago-kionean, guztioi eragiten digu ingurugiroak eta zuhaitz landaketa batek, iruditzen zaigu neurri batean, lagundu egiten duela.

9. Nori zuzendua dago zuhaitz landaketa?
Iruñetik jendea etorriko da, eta Sakanan parkinsona duen jendea ere hurbilduko da. Enrique Zelaia-ren laguntza izanen dugu bere akordeoiarekin, eta nahi duena gerturatu daiteke, jarduera irekia da.

10. Beste jardueraren bat egin duzue?
Beste urte batzuetan Done Jakue bideko etapak egin ditugu, eta horietako batzuetan parte hartu dut. Jarduera asko egiten dira, gure helburua parkinson gaixotasunaren ezagutza sustatzea baita.

11. Erakunde publikoen aldetik nola sentitzen zarete?
Egia esan ez dugu laguntza askorik jasotzen. Ezgaitasun handia duten pertsona batzuen kasuan murrizketak direla eta laguntza guztiak kendu egin dizkiete. Laguntza gutxi zeuden bere garaian, baina gauegun ia denak kendu egin dituzte. Kasu batzuetan arreta jarraitua behar duten gaixoak daude, eta momentu honetan ezer gabe geratu dira.